



Erroma, I. gaia

Antzinaroaren Historia II: Erroma, Errepublikatik Inperiora (Universidad del País Vasco)

I. ERREPUBLIKA

0. KRONOLOGIA

- Errepublika arkaikoa (509-264 K.a.): erakundeen eraketa.
- Errepublika ertaina (264-133 k.a.): konkista militarra → momentu honetan eratuko da benetako *res publica*.
- Errepublika berantiarra (133-27 k.a.): krisi politikoa.

1. ERROMAKO HIRIA

Erroma antzinatean eta orain ere, figura handia zen, teatro edo *scaena* bezala ulertu behar genukeena, gu bertako figuranteak ginatekeelarik. Erroma, beti lotuta agertu da bai historian, bai turismoan... *septimontium* delako kontzeptuarekin, hau da, Erromako zazpi muinoak



liratekeenak. Gaur egun muino hauek ez dira ikusten, bakarrik bi nabarmentzen dira, Quirinale (gaur egungo Italiako presidentearen egoitza) eta Vatikanoa liratekeenak. Garrantzitsuenak sorreran ikuspuntutik: Capitolinoa, Aventinoa eta Palatinoa dira. Aventino hasieran harresietatik kanpo eta Tiberren alboan ezartzen zen. Capitolioa jainkoen etxebizitza izango da, Palatinoa Inperioaren garaian enperadorearen etxea eta foruaren parean kokatuko litzatekeena zatekeen; eta Aventino, harresietatik kanpo, *populus* edo herria biziko den tokia.



Arkeologiaren arabera, K.a. IX. mendean sortu zen Erroma, *insola* Tiberina delako Tiber gaineko uhartetxoan eta Tiber ibaiaren alboan. Ibaitek bideratuko dute merkataritza guztia, oso garrantzitsua izango delarik. Bertan portua eratuko dute, eta Tiberren *Ostia Anticako* (Erromako

portua) bidean kokatuko da populazioa.

Muinoak defentsarako izango dira, eta hasieratik, lautada moduko bat beharko dute guztiak elkartzeko eta muino horien inguruak komunean izateko, forua sortuko da, eta muino guztien zentroa izango da. **Forua** sortzeko, pantano modukoak zeuden muinoen artean eta horiek gaixotasun anitzak sortzen zituzten, malaria kasu; horren aurrean, bai eta zentro politiko-ekonomikoa sortzeko beharraren aurrean, muino guztien artean erabaki zuten pantanoak lehortu eta forua edo zentro politiko-ekonomikoa izango

zena sortzea. Horrela, bailara artifiziala sortuko dute. Boterea hasieratik, aristokraziaren eskuetan geratuko da, eta *populusa* harresietatik kanpo geratuko da.

Politiko-erlijioso kutsuko beste toki bat ere eratuko dute, **zirkoa** deituko dena; hiritar guztiek bai aberats zein herriek bertan beren boterea erakuts dezaten. *Cloaca maxima* edo garbiketa lanak (pantanoak zeuden tokiak), forua eta bizitza ekonomiko behar dutenez, harresitik kanpo kokatutako nekazari eta merkatariak beharko dituzte eta horretarako politika parte ezin hartu arren, aukera emango du elkarrekin egoteko eta ospatzeko eta horrela, elkartasun sentimendua sortu eta identitatea sortuko da, **erromatar identitatetzat** ikus genezakeena; erromatarrek interes komunak izango dituzte, zirkoan antolatuko dituztelarik honakoak.

Aristokrazia eta herriaren artean gatazkak sortzean, beti *populusa* Aventinora igotzen zen eta aberatsenganako zituzten betebeharrei uzten zien. Denborarekin Opia, Velia eta Caelian auzo erresidentzialak sortuko dira eta Suburu, Erromako ospe txarreko auzoa ere bertan nabarmendu ahal izango dugu.

Campus Martius, hasieran, leku zabal eta Erromako populazio armatua biltzeko tokia zen, hau da, armada biltzeko tokia eta harresitik kanpo zegoen. Armada handia zen, izan ere, zelaia handia zen. Zirkoa armada baino txikiagoa baino forua baino handiagoa zen eta beraz, tamainaren arabera boterearen sailkapena antzeman genezake. Foruan, gutxien arteko botere politikoa mantentzen zen.

Capitolio muinoan, **Iuppiter Optimus Maximusen** (eskuzabala) tenplua kokatuko da. Honako jainkoak hiria babesten eta zaintzen zuen, tenplutik. Tenplu honetan, hasi eta bukatzen ziren Erromako prozesio guztiak, tratatuak firmatzera ere bertara joaten ziren, bai eta magistratuak izendatzera, apaizak botoak egitera ... **Erromako kalerik garrantzitsuena Via Sacra** delakoa zen eta bertatik garaipenak ospatzen ziren, eta Errepublika garaian ospakizunetan baino ezingo ziren Via Sacran armak erabili.

Cloaca maxima airean egon zen urteetan, baina ondoren, Inperio garaian estali egin zuten. Epidemia ugariak sortzen zituen, batez ere, sukarrak.

Forua: Senatua, asanblada aristokratikoaren gunea izango da; basilika Aemilia, herria elkartzeko eta justizia izateko tokia izango da; basilika Iullia, basilika Aemiliaren parean kokatuko da; artxibategian edo tabularium delakoan, Erromako hiritar guztien zentsuak bertan mantenduko dira, bertan ez bazeunden ez zinen hiritarra; senatuaren parean, Saturnoren tenplua kokatzen zen eta bertan *senatusak* erabiltzen zuen diru guztia zegoen, hasieran zaintzarik gabe egoten zen, baina IV.-V. mendetik



aurrera zaintzaileak jarri zituzten, oso txikia zen kamara. Diru gutxirekin bideratzen zuten estatua, dirua beste toki batzuetan gordetzen ote zuten ere ezbaian jarri izan da... **Konkordiari dedikatutako tenplua** senatuaren alboan zegoena, Erroma sortzeko oinarritzko adostasun bat egon zela uste zutelako eraiki zuten eta konkordia gorde egin behar zutela uste zuten eta horren eraginez, hori sakralizatu egin behar zen, horregatik tenplua. Gatazkak zeudenean konkordiari laguntza eskatzen zieten eta hitzarmen guztiak, *fides* edo konfiantzaren bidez egiten ziren. Fidagarriak ziren bakarrak erromatarrek ziren, atzerritarrek, Erromak konkistatutako herri gehienak, itun batekin erromatarren esanetara ibiltzen zirenak baina atzerritarrek zirenak... *perfidia* edo mesfidantza deituak izango dira.

Erromako sorreran, **Vesta** Erromaren arima babesteko jainkosa izendatuko da, Erromaren jarraikortasuna babestuko duelarik; jainko maskulinoak, normalean, gerraren bidezko ekintzak babestuko dituzte. Umeak izateko, zentzu sinbolikoan, tenplu zirkularra izango du Vestak; foruaren inguruan kokatuko da honakoa, toki bazterrago batean. Orain arte aipatutako gune guztiek Via Sacra zeharkatuko dute. *Via Sacra* ekialdetik sartu, forura joan, Vestaren aurrean, senatuaren aurrera... geratzen ziren garaipena lortutako jeneral eta haren soldaduak. Capitolora igotzen ziren Jupiterri armadak izandako garaipena emateko. Izugarritzko ospakizuna izan ohi zen.

K.a. V. mendean, eraikin publikoak areagotzen hasiko dira, batik bat, tenpluak. Tenplu horiek batez ere, aristokraziak eraikiko ditu, beren presentzia emateko eta garaipenak goraiatzeko izango direlarik, hau da, botere erakusleak dira. Portutik eragin kultural erlijiosoak etorriko dira, Magna Grezia eta Siziliatik. Zeramika greziarra ekarriko dute, bai eta beren mitologia eta erlijioa ere. Batez ere, mito bidaiariak ekarriko dituzte, Herakles bidaiaria egingo dute, merkatari greziar eta etorkinei aukera ematen zien giltza bat bazuten modu horretan erromatarrekin harremanetan jarri ahal izateko. Tenplu horietan, apaingarri greziarrak ... ezartzen hasiko dira. Hasieran tenplu guztiak egurrezkoak izango dira eta harria k.a. I. mendean sartuko da eta marmola Augustoren garaian.

Kapitolioko muinoa, aristokraziaren gunea izango da eta jarduera politikoaren gunea. Eremita sakratua, Erroman egiten diren gauza guztiak Jupiterren babesaren izateko eta horren atzean Campus Martius delakoa egongo da. Campus Martiusen *auguracum* delakoa kokatuko da, magistratu eta augurak joaten ziren bertara eta erromatarrek jainkoei kontsultatzen zizkieten gauzak. Augurea harri baten gainean jarri eta txoriak aztertuz, zer egin behar ote zen erabakiak zehazteaz arduratzen zen. Erabakiak egon behar zuten gauzak aurrera eramanez ahal izateko. Kapitolioko muinoan tenplua zegoen eta barnean, Jupiterren estatua erraldoia zegoen. Jupiterrekin batera, Juno eta Minerva zeuden, eta hiruak batera, **Triada Kapitolina** delakoa osatuko dute, hau da, Erromako babestzaileak izango direnak. Jupiterren tenpluaren inguruan ere tenplu txikiak kokatuko dira; horietako bat Libertas izango dugu, terminoari dagokionez, askatasuna, gutxi batzuentzat mugatuta zegoen eta pribilegioa izango da eta ez eskubidea, eman bezala kentzeko aukera zegoelarik.

Jupiterren tenpluan, jainko bakoitzak bere *cella* edo gela izango zuten, izan ere, hiru jainkoak gela berebean sartuz gero, haserretu egiten ziren. Tenpluaren irudia greziarren eraginezkoa zen eta zenbait alditan erre egin zela erregistratu ahal izan da Jupiterren tenplua. Atzerritarren ordezkariak ere bertara joaten ziren.

Senatuaren aurreko espazioa *comitium* gisara hartzen dute; bertan egurrezko gradak ezartzen ziren eta bertan hiritarrak elkartzen ziren, baina armarik gabeko hiritarrak izan ohi ziren eta lekua txikia izan ohi zen. Horrela, erabakiak lasaiago hartu zitzaizkiren eta ez, Campus Martiusean armekin zeukaten ezinegonarekin. Garrasika protestatzen zieten hiritarrek senatuari eta senatuak ateak itxi besterik ez zituen egiten nazkatzen zenean. Gainera, senatuak, guardiak zituen jendea lasaitu ahal izateko.

Foruko beste toki esanguratsuak:

Rostrak gerrako barkuen aurreko espolioak esan nahi du. Erromak I. Gerra Punikoan kartagoarren espoloi dezente hartu zituen eta erromatarren boterearen adierazle espolioak ezarri zituzten foruan, *rostra* izeneko multzoan. *Rostra* gora magistratuak igotzen ziren herriari hitz egiteko eta herriak ez zuen bozkatzeko eskubiderik, haserretzeko edo baiezkoa emateko aukera baino ez zuten; eta boterea daukatenak baino ezingo dute hitz egin. Erromako boterea bi modutakoa zen: *auctoritas* eta *potestas* delakoak. **Auctoritas** (gauza bat egiteko esaten denean eta *coercitiorik* edo presiorik gabe egiten denean) autoritatea izango da eta **potestas** boterea (bai ala bai boterea betetzeko) litzateke.

Lapis Niger, senatuaren aurrean, Romulok Remo hil zuen tokia izango da. Senatuaren aurrean ezartzeak, senatoreei Remo bezala bukatzeko aukera eta monarkia txarra zela adierazten zieten.

Septimius Severoren arkua ere foruaren barnean dugu.

Umbilicus urbis edo hiriko zilborrean, inframunduaren eta gaur egungo munduaren arteko tokia kokatzen zen, harriaren barnean koba bat kokatzen zelarik. Horrela, beren arbasoak foruan beraiekin zeudela adierazteko erabiltzen zen. Munduaren zentroa litzateke honako harria, horrela, Erroman munduko zentroa kokatuko delarik.

Aureoa edo lehenengo miliarioa ere foruan *umnilicus urbis* delakoaren ondoan zegoen. Brontzezko zutabea zen.

Marsyas, Picus, (begiratu etxean), esanahi ekonomikoarekin zerikusia du eta greziar oihartzuna du.

Errepublikako lehen harrizko teatroa Pompeioren teatroa izango da.

Senatua edo *curia hostillia*, eliza bihurtu zelako mantendu da gaur egunera arte. Emakumeak bultzatzen zituzten gizonezkoek senatuaren aurreko alderaino, lehenengoek, garrasiak, negarrak ... egin ahal izateko protesta gisara. Pompeioren

teatroa eraiki baino lehen *comitiumeko* gradetan antzerkia egiten zuten eta tente ikusten zuten, izan ere, erromatarren ustez gizentasun gutxitasuna erakusten omen zuen I. mendera arte antzerkia eserita ikusteak. Batzuetan Saturnoren, Konkordiaren edo *pomeriumetik* edo Erromako muga sakratutik kanpo kokatzen ziren senatuaren bilera garrantzitsuenak. Artxibategia monasterioa izan delako mantendu da gaur egunera arte.

Gracoestasis delakoan, enbaxadore atzerritarrak kokatzen ziren eta jendeak begiratu egiten zituen pertsonaia exotikoak bailiran. Hasieran enbaxadoreak greziarrak baino ez ziren, baina ondoren, hispaniarrak, galiarrak, afrikarrak ... ere agertuko dira; germaniarrek erromatarren aldetiko irainak jaso beharko dituztelarik. Eta horrela, bueltaka egoten ziren denbora guztian *comitiumean*.

Pomeriunaren barnean, magistratuen boterea ezartzen da. Muga ere markatzen du soldaduak sartu ahal izateko eta bertara ezin dira sartu armekin. Bertara armekin sartuz gero, *sacrilegium* egitea zeritzon eta zigor handiak jasotzen zituzten. Inperio garaian hiria babestu ahal izateko eta Inperioaren boterea zabaltzeko *pomeriuma* handituko dute.



Caster eta Poluxen tenplua eratuko dute, bikiak dira eta Troiako Helenaren anaiak dira. Greziar eragina erakartzen dute Erromara modu honetan. Sinbolo hauekin guztiekin, greziar kutsua pixkanaka sartuko da Erroman eta honako tenplu honetan ikus genezake horren adibide argia, Caster eta Poluxek, Romulo eta Remoren antza zutelako.

Lacus Curtius, hasieran foru honetan gerrak egon zirela boterea lortzeko adierazten duen oroitarria litzateke.

Janiculo, enperadoreek beren lorategiak ezartzeko zuten gunea zabala zen.

Campus Martius delakoan, *Villa Publica* delako eraikina zegoen. Bertan Erromako etsaiak gordetzen ziren Erromara sartu aurretik edo garaipena lortzen zuen jenerala ere bertan egoten zen. Hiritar erromatarrak soldaduak izango dira, zentsua idazten zuten *Villa Publica* delakoan.

2. GARAPEN HISTORIKOA: KONKISTEN GARAIA

2.1. SARRERA

VI. mendean Res Publika edo Errepublika sortzen da. Hasiera hasietarik Erromak, kezka defentsiboengatik, bere muga zabaltzeari ekin zion konkisten bidez. Momentu honetan Italia penintsula izendatzen duen kontzeptu geografikoa baino ez zen, eta bertan herri ezberdinak zeuden: batetik, bazeuden bertakoak -sabinoak, latinoak eta etruskoak-, eta bestetik, Italiako hegoaldean Greziarrak zeuden.

Konkisten azalpenak, hiriaren fundazioaren azalpenak bezala, modu mitikoan eman zituzten erromatarrek. Batetik, badugu Eneas eta bestetik Romulo eta Remo. Eneasi dagokionez, Eneas Troiako printzea dugu, Troia suntsitua izan ostean bertatik ihes egin eta mendebalderantz abiatu egin zena. Mediterraneoan Cartagora iritsi zen lehendabizi eta ondoren Italiako Penintsulara eta, bertan, bertako errege baten alabarekin (Lavinia) ezkondu zen eta ondoren Erroma sortu zuen. Eneas berez, greziarra ez bazen ere, erromatarrek greziartzat hartzen zuten eta modu horretan etnia latinoak eta greziarra batu zituzten; hain zuzen ere, jatorri horretaz baliatuko ziren ondoren euren Ekialdeko eta Greziako konkistak justifikatzeko.

Romulo eta Remori dagokienez, Romulo eta Remo Marte gerra jainkoaren semeak ziren. Kondairaren arabera, Amuliok, Alba Longa hiriko erregea izateko nahian, Numitor, bikien aitona eta benetako erregea, hiritik bota zuen. Romulo eta Remo, haztean aitona postua eskatu ez zezaten, hiltzea erabaki zuen Amuliok. Hala ere, bikiak hil behar zituen morroiak sehaska batean jarrita, ibaian utzi zituen. Tiberinok, ibaiko jainkoak salbatu zituen bikiak, eta Palatino muinoko otseme batek bularra eman zien. Faustulok, Amulioaren artzain batek, Romulo eta Remo aurkitu eta etxeratu zituen. Garai eta indartsu hazi ziren bikiak, eta Faustulok haren leinu noblearen berri eman zien. Amulio eta Alba Longa eraso egindakoan, aitona kokatu zuten errege. Beste hiri bateko erregeak izan nahi zuten haiek. Palatino muinora heldu zirenean, Romulok esan zuen hor fundatu behar zutela haien hiri berria. Remok, ordea, Aventino muinoa hobesten zuen. Erabakitzeko, jainkoen borondateari men egitea deliberatu zuten. Plutarkoren arabera, Remok sei bele ikusi zituen, eta Romulok, hamabi. Romulo idi pare baten bitartez hiriko mugak markatzen ari zela, Remok, jeloskor, madarikatu zuen hiria. Romulok bikia hil zuen. Bere omenez, Erroma deitu zion hiri horri, eta lehen errege bihurtu zen.

Romulo eta Remok Erromako hiria fundatu zutenean, armadarekin egin zuten soilik; ondorioz, emakumeak behar zituzten eta horiek Sabinatik lortu zituzten. Etruskoak historia honetan otsoaren bidez sartzen dira, otsoa etruskoa baita. Ondorioz, Erromaren fundazioan herri desberdinek parte hartu zuten. Hain zuzen, jatorri anitz horiez baliatuko dira erromatarrek Italiako herri desberdinak konkistatzeko momentuan.

(Beste era batera esanda) Erromatarrek hasieratik badakite etnia aniztasun anitza dutela: latinoak, sabinoak, etruskoak eta greziarrak. Ondorioz, hori oinarri hartuta, lurraldeak konkistatzen dituzte: konkista horietan bortitzen samnitena izan zen. III. mendean Italia

osoa konkistatuta, benetako arazoa hasiko da, orduan ekingo baitiote Penintsulako mugetatik kanpoko lurak konkistatzeari. Handik aurrera inperialismo garaia hasiko litzateke historialarien aburuz.

2.2. PIRROKO GERRAK

Inperialismoaren garaia gerra famatu batekin hasi zen: Pirro erregearen kontrako gerrarekin, hain zuzen. Pirro Epiroko erregea zen eta oso gazte zela iritsi zen tronura. Pirroren aurkako gerra honetan Erromak gerra egiteko modu berri batekin topo egin zuen, falange hoplitikoarekin hain zuzen, eta lehenengo porrotak jasan zituen. Horrez gain, Erromak lehenengo aldiz gerra ideologikoarekin topo egingo du. Izan ere, Erromak gerra gauzatzeko argudio defentsiboa erabiliko zuten beti.

Alejandro Handiak mendebaldea konkistatzeko egin omen zituen proiektuak (Alejandrok inperio unibertuala sortu nahi izan zuen: *oikumenea*) beti erabili dira mendebaldeko konkistak bultzatu eta justifikatzeko. Pirrok hori egin zuen hain zuzen: Alejandroren oinordeko gisa aurkeztu zuen bere burua Erromaren eraso justifikatzeko. Beraz, armada ezberdin eta lerro ideologiko ezberdin baten aurrean aurkitu ziren. Horrela, Erromak lehenengo aldiz ikusi zuen bere argudio defentsiboak ez zuela balio eta argudio berri bat bilatu behar izan zuen: orduan, beraiek esango dute eurak ere greziarrak direla (Eneasen kontua), eta Alejandroren oinordekotzat aurkeztuko dira eurak ere bai. Hemendik aurrera helezinatzeari ekingo diote eta baita hegoaldeko lurak (Magna Grezia) konkistatzeari.

Ekintza armatuari dagokionez, lehenengo mugimendua Pirrok egin zuen: bere falange hoplitikoa Erromara eraman zuen. Erromatarrek ez bazeukaten ere horren armada antolatua, bereziki abilak ziren zalditerian eta *razzia* (ataque por sorpresa contra un asentamiento enemigo) egiten. Hala ere, ez zeuden ohituta bataila irekiak eta horren handiak aurrera eramaten eta lehenengo porrotak jas zituzte. Pirrok gainera elefanteak erabiltzen zituen eta erromatarrek ikustean izutu egin ziren; bestalde, epirokoek armadura astuna eta antolakuntza hobea zuten. Ondorioz, erromatar armadaren birrantolaketa bat emango da: soldadu gehiago erreklutatuko dira, baina erreklutatzeaz gain, entrenatu ere egingo dituzte gizon horiek. Ondorioz, eta Pirrok egindako zenbait akatsei esker irabazi egin zuten.

Behin Epiro konkistatuta, hurrengo etsaia bilatzeari ekin zion Erromak. Erromak bi aukera zituen: ekialdera jotzea edo mendebaldera jotzea. Momentu honetan itsas armada ez zenez oso indartsua eta agian Mazedoniako erresuma indartsuago ikusten zuenez, mendebaldera jotzea eta Sizilia bereganatzea erabaki zuen. Hemen bigarren etsai nagusia topatuko dute: Cartago. Jada gerra ideologikoan trebeak izango dira, eta Eneasen kondairan oinarrituko dira (Dido). Erromatarrek Kartagotarrekin topatzen dira mediterraneoko lehia honetan. Horrela Kartagotarren gerrak edo gerra punikoak hasiko dira.

2.3. GERRA PUNIKOAK (K.a. 284-146)

Kartago Afrikako ipar-mendebaledean zegoen potentzia maritimoa zen eta beraien kontrako gerrak eta gatazkak gerrate puniko moduan ezagutuak izango dira. Gerra hauetatik aurrera erromatarrek garrantzia handia emango diote arlo ideologikoari eta beraien joera beti izango da etsaiak modu zehatz batean karakterizatzea, errazago suntsitzeko. Kartagotarrak perfidiarekin lotuko dituzte, hau da fidagarritasun ezarekin, eta, ondorioz, fidagarriak ez direnez, ezin izango dira inoiz erromatarrek izan eta akabatuak izan behar dirsa (kutsu arrazista antzematen da, beraz). Alde militarrean ere Pirroren aurka borrokatzea ikasitakoa aplikatuko dute eta legioa perfektzionatuko dute; horrez gaina, itsas armada antolatuko dute.

Kartagok Europako hego-mendebaldean Siziliako mendebaldea, Sardinia, Korsika eta Hispania menperatzen zituen. Erromatarrek Kartagotarren aurka aritzeko Mediterraneoan gune desberdinak izango dituzte mendebalderantz joatea ahalbidetuko dietenak.

2.3.1. Lehenengo Gerra Punikoa

Siziliako Gerra

Lehenengo Gerrate Punikoaren baitan garrantzitsuena Siziliako Gerra izan zen. Gerra honen izaera nagusiki ekonomikoa izan zen, helburua lurraldea eta inguruko merkataritza kontrolatzea baitzen. Sizilia oso aberatsa izan da beti nekazaritza (garia landatzen zelako, eta garia oso garrantzitsua zen Erroma hornitzeko) eta merkataritzari begira. Kontuan izan behar dugu garai horretan Erromako armada handitu egin zela elkar eragiten duten bi ondorio ekarriz: elikatu beharreko soldaduak ugaritu egin ziren; eta soldaduen kopurua handitzean, lurak lantzen zituztenen kopurua murriztu egin zen. Ondorioz, elikagaiak, eta batik bat, garia beste nonbaitetik lortu behar ziren. Erromak bere infanteria berria -legioa (legioa momentu horretan 5000 bat soldaduk osatzen zuten, baina Inperio garaian 8000ra handituko da soldadu kopurua)- probatu zuen Sizilian eta Kartagotarrak gainditu zituen. Ondoren itun bat sinatu zen erromatar eta kartagotarren artean, zenbait isun ezarriz bigarrenei. Hala ere, handik gutxira kartagotarrek Hispaniara alde egin zuten isunek itota eta berriro ere indartzeko asmoarekin. Tito Liviok ez zuen honakoa horrela kontatu; bere bertsioa kartagotarren amorruan oinarritu zen.

2.3.2. Bigarren Gerra Punikoa

Bigarren gerra hau famatuena da eta Anibalen aurkakoa bezala ezaguna da; hala ere, beraz gain (Anibal Barka) beste bi Barkek ere parte hartze handia izan zuten: Asdrubal eta Amilkar, hiruak lehengusuak zirelarik. Bestalde, gerrari buruz iritsi zaigun informazioa mitoz eta legendaz josia dago eta, hori dela eta, zuhurtzia handia izan behar da. Horrez gain, aintzat hartu behar dugu gerra honi buruz dakigun guztia erromatarrei esker iritsi zaigula eta ez kartagotarrei esker.

Hasiera batean, kartagotarrek, Anibalek zuzenduta, garaipen ugari izan zituzten eta Erromako ateetaraino iristea lortu zuten. Baina Pirrok egin zuen moduan, Erroma guztiz akabatu beharrean *eusebia* (klementzia) erakutsi zuten, sekulako akatsa izan zena; izan ere, Erromak posible izan zuen berriro ere altxatzea eta hobetzea eta etorkizunean kartagotarrak garaitzea. Hemendik dator hain zuzen, garaipen pirrikoaren terminoaren esanahia. Erromatarrek, ordea, kontrakoa egingo dute eta ahal duten guztietan etsaia guztiz akabatuko dute.

Erromak, Anibalen auka galdu ostean ikusi zuen zenbait alor hobetu egin behar zirela. Lehenik eta behin, ulertu zuten armada handiago bat behar zutela, bereziki Mediterraneoan kontrolatu nahi bazuten. Bigarrenik, ulertu zuten armada zuzenduko zuen jeneral ospetsu eta garrantzitsu bat beharrezkoa zela, ekialdeko eta mendebaldeko jeneral ospetsuei aurre egiteko. Horren adibide Eszipion *inperator* daukagu, Gerra Punikoko jeneral erromatar ospetsuena izan zena.

Oso denbora gutxian ia Mediterraneo osoa kontrolatzen zuten erromatarrek eta II. mendearen hasieran jada lurralde inperio bat sortu zuten, mendebaldeko indartsuena izango zena eta baita iraunkorra ere. Mediterraneoan ez bezala, ekialdeko konkista egitean, batez ere Mazedonia eta Seleuzidaren kasuan, perfidiaren argudioak ez zuen balio. Kasu honetan konkista kultura aldarrikatu zuten: hau da, konkista gerraren bidez gauzatu zen, baina baita kulturaren bidez.

2.4. IMPERIALISMOA

Erromatarrek zergatik egin zituzten konkista guztiak? Gaur egun horri inperialismoa deitzen diogu, baina erromatarrek inoiz ez zuten horrelako hitzik erabili, beraientzat aurrera eramandako gerra guztiak justuak izan zirelako: edo defentsiboak edo besteek beraiek eskainitako laguntasuna ukatu izanaren ondorio. Edozelan ere, inperialismoa, erromatarrekin lotuta dago eta *imperium* latindar hitzetik dator, bestalde, esan dezakegu menperatutako lurretan kontrol zuzena eta unibertsala izatean datzala. Atenasek edo greziarrek izandako inperioari berriz hegemonia esaten zaio, menperatutako lurak ez zituztelako zuzenean kontrolatzen. Garai horretan erromatarrentzat ezezaguna bazen ere, Ekialdeko Txinako Han inperioarekin parekatu daiteke Erromako inperioa (Txinako inperioa ere momentu horretan sortuko da).

Inperialismoa dagoela onartuz gero, zer motatako inperialismoa egon zen? Hemen bi korrante daude:

- Defentsiboa: Erromaren inperialismo defentsiboa izan zen, erasopean zeudelako beti erromatarrek eta beraien burua defendatzeko gauzatu zutelako. Korreonte hau iturri erromatarrekin bat dator (Badian).
- Erasokorra (WW. Harris: *Guerra e imperialismo en la República Romana*): Harrisek teoria berri bat sortu zuen 50eko hamarkadan, aldarrikatuz Erromak gerra egiten zuela aristokrazia lehiakorra zuelako. Hau da, aristokraziak boterea lortzeko diru asko eta ospea behar zituen eta horiek gerraren bidez lortzen ziren.

Erroman ospetsuenak jeneralak ziren eta, beraz, aristokraziak gerra behar zuen bere burua ezagutarazteko indartzeko; gainera, hauteskundeak garestiak ziren eta finantzatzeko dirua beharrezkoa zen (kargu publikoek ez zeukaten soldatarik eta aurkeztea garestia zen). Beraz, bigarren korrante honen arabera gerra erromatarra ofentsiboa zen.

- Gruenek Harris eta Badianen iritziak matizatzen zituen, esanez gerrak ofentsibo defentsiboak izan zirela.
- Ecksteinek (denak dira maisu eta ikasle: Harris Badianen ikasle izan zen, Gruene Harrisen ikasle eta Eckstein Gruenen ikasle) beste ikuspegi bat aldarrikatu du: erromatarrek inperioa lortu zuten, Mediterraneo osoan eurak izan zirelako hori lortzeko gaitasun adina izan zuten bakarrak. Gauza da erromatarrek ez zirela erasokorrek ziren bakarrak edo konkistak gauzatzen zituzten bakarrak, baizik eta gainerako herri guztiak jarduera berdinetan aritzen ziren, baina beraiek izan ziren bakarrak hori amaieraraino gauzatu ahal izan zutenak (teoria honi *empire by invitation*). Hau da erromatarren jarrera ez zuten beraiek produzitu, baizik eta testuinguruaren ondorioa izan zen.

2.4.1. Gaur egungo teoriak inperialismoari buruz:

Hiru motatakoak dira azalpenak:

- Metrozentrikoa: zabalkuntza prozesua zentrotik aztertuko da, hau da, Erromako ezaugarri politiko, sozial eta ekonomikoak lehentasuna ematen. Konkistatutako herriak ez dira kontuan hartzen analisi mota honetan.
- Sistematikoa: hemen konkistatzailea eta konkistatua batera aztertzen dira, beraien arteko interkomunikazioa eta eragina ikusten. Bere oinarri nagusia botere eta sekuritatean datza. Inperioa sortzen da, botere desberdinen lehiatik, sistema beti desorekatuta dagoelako.
- Periferikoa edo exzentrikoa. Inperioa sortzen da periferian dauden kolaboratzaileek eskatzen dutelako indartsuenaren interbentzioa; hau da, *empire by invitation*.

2.5. KONKISTAK EGITEKO ERROMAREN TRESNAK

Konkistak egiteko Erromaren tresna nagusiak bi izan ziren:

- Armada:
- Tresna juridikoa. Erromaren sistema ideologikoan Erromak beti gauzatzen duen gerra justua da, eta beraz zuzena, kalte bati (moral, espiritual, moral...) erantzuten egiten delako gerra → *bellum iustum*. Gerra justua denez gero, garaipena ezinbestekoa da. Behin gerra zintzoa eginez gero eta irabaziz gero, hurrengo pausoa konkistatutako herriak menperatzea eta kontrolatzea da eta horretarako zuten tresna juridiko nagusia *deditio*-a (=errendizioa) zen. Honek suposatzen zuen, errendizioa eskaintutako herria borondatez nolabait Erromaren

menpe jartzen zela eta Erromaren handitasuna eta nagusitasuna onartzen zituela. *Deditio* mota asko daude, baina ez dira denak ezagutzen ezta ondo ezagutzen; hala ere, hiru errendizio mota sailkatu dira:

- *Deditio* hutsa: Herrian sartzen dira eta hura guztiz suntsitzen dute, eta gainera errendizioa exijitzen dute.
- *Deditio in fidem*: hori egien da normalean erromatarrek ikusten dutenean erraz lortuko dutela garaipena eta aurkakoek badakitenean erromatarrek sartuz gero herria suntsituko dutela; hori, bai, lehendik erromatarrek euren indar militarra erakusten dute. *Deditio* honen bidez herria, lurrak eta bertako biztanleak fidagarritasunez (*in fidem*) eskaintzen dira suntsituak izan ez daitezten. Horrela, seguruenik emaitza berdina izango bada ere -gehienek esklabo moduan amaituko dute-, gutxienez herria eta bitzita batzuk salbatzea lortuko dute.
- Aurrekoaren bariante bat *deditio voluntaria da*, besterik gabe errenditzen direnean, erromatarrek euren indar militarra erakusteko beharrik izan gabe. *Deditio voluntario* delako askotan aipatzen da testu klasikoetan.

Orokorrean *deditio* mota guztietan emaitzak berdintsuak badira ere, azkeneko bi *deditio* motei dagokienez, posible da baldintza hobeak edo ez horren latsak lortzea. Bestalde, *Deditioa* oso garrantzitsua da erromatarrentzat, tresna juridiko bezala, haientzat denak justua izan behar duelako.

3. EGITURA HIRITARRAK

Hiritarra bi modutan ikusi dugu, batetik, *miles* edo soldadu, hiritar legionario bezala, bai eta *cives* edo zibil, hiritar nekazari gisara, hau da, lurra lantzen zuen gisara asanbladetan parte hartzen. Hiritarraren hirugarren dimentsioa, erlijiosoa izango litzateke, jainko-jainkosekiko jarrera eta bere idealizazioa, hiritar *pius* edo hiritar errukia edo ona litzatekeena.

3.1. ARMADA

Erromatar armada borroka egiteko erakunde bat zen. Otsailaren bukaeran urte politiko eta militarra hasten zen, eta horrekin batera, erreklutamendua. Magistratu batzuek urte horretako behar militarrek zeintzuk izango ziren aztertzen zuten eta horren arabera soldaduak erreklutatzen ziren. Modu horretara, hiritarrak *miles* bihurtzen ziren, baina horretarako, aurretik, bi zeremonia egiten ziren: *lustrato* eta *tubilustrium*. *Lustrato* garbiketaren zeremonia zen eta horretan armak garbitzen ziren. *Tubilustrium* zeremonian, berriz, batailetan komunikatzeko erabiltzen ziren tronpetak garbitzen ziren. Bi instrumentu nagusi zeuden, *Tubal* eta *Cora*, deiturikoak: Tubalaren bidez, batailaren hasiera eta bukaera adierazten ziren -beraz, oso garrantzitsua zen-; Coraren bidez, berriz, mugitzeko aginduak ematen ziren. Erreklutatuak ziren gizon horiek testamentua egin behar zuten. Behin erreklutatuta Marteko zelaian elkartzen ziren eta

komandanteari, beraien kideei eta hiriarri (hura babestuko baitzuten) zin egiten zieten. Hori kanpaina egiteko egiten zen.

Gizonak erreklutatu ondoren entrenatu egiten ziren diziplinari eusteko. Armadaren barruan, talde ezberdinak zeuden, bakoitzak bere funtzioak zituelarik. Oso argi izan behar zuten hasieratik beraien funtzioa zin zen eta, hori dela eta, diziplina oso gogorra izango zen. Erreklutatutako gizonei bi agindu emango zitzaizkien: ez zuten inoiz atzera egingo eta ezin zuten inoiz beldurrik izan.

Beraien burua errekonozitzeko uniformeak eta armak izango zituzten. Armak bakoitzak erosi beharra zituen, ezberdintasunak sortuz: 1) xumeenek, harriak edo eskuak erabiliko zituzten borroka egiteko; 2) gero bazeuden lantza bat zutenak (“asta” edo *pilum*); 3) ondoren koraza zutenak zeuden (hopliten modukoak); 4) azkenik, diru gehien zutenek zaldiak eramaten zituzten.

Armadak bere sorreratik arazo larri bat izan zuen, gizonez osatuta egonik, horiek elikatu beharra zegoela eta baita ordaindu egin behar zitzaiela ere. Horniketa eta soldaten ordainketa ezinbestekoa zen soldaduen matxinadak edo *seditiones* ekiditeko, eta benetako buruhaustea izan zen erromatar armadarentzat. Hasieran, soldaduek soldata finko bat ez zuten arren, denborarekin lortu egingo zuten.

Armadaren baitan zenbait faktore kontuan izan behar dira: egitura, armak, taktika eta antolakuntza → erromatar armada funtsean. Greziarra ez bezala, armada arina izan zen. Bestalde, kontuan izan behar dugu berebat armada gizartearen atal bat dela, eta gizartea aldatzen den moduan, armadak ere eraldaketak jasoko dituela: horrela, errepublika hasierako armada, I. mendeko gerra zibiletakoa edo inperio garaikoa ez dela berdina izango.

Testua: *actus V. Toxilus*: Armadaren helburua

- Etsaiak garaitzea;
- Hiritarrak salbatzea;
- Estatua lasai;
- Erabateko bakea;
- Gerra bukatuta;
- Estatuak ondo egin ditu gauzak;
- Biziak galdu gabe (ez da egia izango, baina osotasunean ez dute galerarik izango); *integratis* delakoa oso garrantzitsua izango da, bai integritate fisikoa eta bai armadarena. Emakumeak gerran parte hartzen ez dutenez ez daude bere osotasunean eta horregatik ez dira inoiz herritarrak izango eta norbaiten menpe egongo dira. Soldaduak ere begi bat, beso bat... galtzen badu ez da hiritarra izango, ez dago osotasunean.
- Jainkoaren bedeinkapena;
- Botina jasotzen dute.

3.1.1. Armadaren egitura eta garapena (Errepublika arkaikotik hasita)

Hasierako urteetan Erromaren etsaiak Italiako hiri eta lurralde desberdinak ziren, gero Erromaren menpe geratuko zirena. Gerra urtero egiten zen, baina ez edozein sasoiatan: neguan kanpamenduetara joaten ziren eta negoziazioak gauzatzen zituzten eta udan bai gerra egiten zuten. Hasierako urteetan armadaren kide gehienak nekazariak izango ziren eta aberatsak zaldiz joango ziren. Etsaiak ez ziren oso ugaria eta, ondorioz, armada oso antolatuta egoteko beharrik ez zegoen eta gehienbat gerrillak izango ziren; hala ere, denborak aurrera egin ahala, eta greziarren eraginez, hauen antzeko armada hoplitiko bat antolatuz joan ziren, baina gerra eskasia dela eta, hau ez zen oso erabilgarria izango. Botinari dagokionez, osagai orokorra esklaboak eta garia izaten ziren.

IV. mendean armada hoplitikoa beste modu batean antolatu zen, armada erromatarrean bihurtuz. Armada berri hura 5 klasetan banatzen zen, banaketa hori betirako izango zelarik, eta bost klase horiek dirua eta tokiaren arabera ezberdintzen ziren. Bestalde, bost klaseak 60 gizonen osatutako 193 zenturiatan banatzen ziren, non adinaren arabera ezberdintasunak antzeman baititzakegu: *iuniores* (17-35/40 urte bitartekoak) eta *seniores* (40-45 bitartekoak); beste guztiak erreserban geratzen ziren. Zenturia bakoitza gero hiriko bizitza politikoan boto unitate bat zen, izan ere, eskubide politikoak armadatik etortzen ziren → hau da, erromatar batek bozkatzeko eskubidea zuen *miles* izateagatik. Hiritarrek 16 urteko zerbitzua eskaini behar zioten armadari, baina urte horiek ez zituzten jarraian bete behar. Atzerritarrak, berriz, 25 urtez aritu behar ziren armadan, eta behin denbora hori igarota bizirik jarraituz gero sari bat jasotzen zuten: **hiritartasuna**. Itsas armadari dagokionez, nahiz eta hiritarra izan, zerbitzu militarra 25 urtekoa zen, suposatzen zelako itsas batailak urriagoak zirela; hala ere arriskua oso handia zen, batailak zeudenean galerak oso handiak izaten zirelako. 193 zenturia horietatik 18 zenturia zaldunenak ziren (Equites) eta bost proletarioenak, hau da hiritar, pobreenek osatutakoak; beste guztiek infanteria osatzen zuten. Zenturia baten buruan zenturioiak zeuden: hauek tropatik gertuenak zeudenak ziren, normalean adoretuen artean aukeratuta eta kanpaina bakoitzeko aukeratzen ziren. Hurrengo kanpainan zenturioiak ezin zuen kargua berriro egikaritu, eta horrek matxinadak sortzen zituen, behin kargua eskuratuta askotan ez zutelako utzi nahi.

IV.-III. mendeetan armada handiago egin zen eta suposatzen da, ez dakigu ziur, bi legio erreklutatzen zirela; legio bakoitzeko 5.000 gizon izakin, 10.000 erreklutatuko ziren. Legio bakoitza normalean, 500 gizonen osatutako 10 kohortetan banatzen zen. Beraz, hurrengo egitura nagusiak zeuden: legioa (5.000 gizon), kohortea (500), manipulua (120), zenturia (60) eta **contubernium** (8). Denborarekin gerra konplikatzen hasi zen eta beharrezkoa izan zen jende gehiago erreklutatzea; horrela, atzerritarrak erreklutatzen hasi ziren eta auxiliarren laguntza eskuratu zuten.

Pirroren kontrako gerran armada erromatarrek lehen aldiz joko du armada profesional baten -falange mazedoniarra- aurka eta gerra horretan demostratu zuen bere armada sistema hobea zela. Greziar armada falangeetan, hau da, bloke nahiko handi eta

konpaktuetan, antolatu eta mugitzen zen bitartean, erromatarra *manipuloetan* (bi zenturiaz osatutako unitatea) egiten zuen, askoz arinagoa zena eta batailaren bahiz lurraren baldintzetara hobeto egokitzen zena. Horrela sortu zen legio manipularra eta hori izango da antzinate berantiarra arte jarraituko duten sistema. Honetaz gain, legionarioen armamentua perfektionatu zuten: lantza handi bat txertatu zuten, eta *clipeus* izeneko ezkutu borobila baztertu zuten eta *scutum* izeneko karratua erabiltzen hasi ziren.

Erromatarren gerra egiteko moduan mugimendua oso garrantzitsua zen eta komandantearen funtzioa tropen mugimendua zuzentzea zen: noiz aurreratu, noiz atzera bidali, fresko dauden tropak mugitzea... Komandanterik gertuenak zenturioiak ziren, baina goi mailako ofizialak tribunoak ziren, aristokraziako kideak izaten zirenak eta kohorte oso bat agintzen zutenak. Gerra hasten zenean, lehenengo lerroetan *hastatiak*, egoten ziren: armadura arin batekin, *scutumarekin* eta lantza (*pilum*) batekin ekipatuta zeuden. *Hastatiek* galera handiak izaten zituztenez, komunitatean balio gutxien eta gerran esperientzia gutxien zutenak, hau da, pobreenak eta gazteenak, jartzen ziren. Normalean bataila hasten zenean, *hastatiak* garrasika hasten ziren eta armak ezkutuaren aurka jotzen zituzten, aurkariak beldurtzeko asmoz. Agindua ematen zenean, aurrerantz mugitzen ziren, aurkaritik 64 bat metrora aurkitu arte. Momentu horretan arinago mugitzen hasten ziren eta aurkarien kontra *pilumak* jaurtitzen zituzten. Hori eginda, bi ondorio posible zeuden: arrakasta izan zezaketen (hau da, aurkarien lerroak apurtzen zituzten) edo ahulezia eman ahal zen. Ahulezia emanez gero, *principes* delakoak sartzen ziren. *Principesek hastatiek* baino esperientzia gehiago zuten eta sozialki gorago zeuden; ekipamenduari dagokionez, sare-kota bat janzten zuten, eta *scutum* bat, zenbait *pilum* eta *gladius* bat (ezpata bat) eramaten zuten. Arrakastarik ez bazuten, orduan, *triariak* sartzen ziren, soldadu zaharrenak edo beteranoak zirena. Bestalde, bazeuden *speculatores* delakoak baita ere, esploratzeaz arduratzen zirenak. Aipatu beharra dago, dena den, erromatarrek askotan ez zutela

Denborarekin, erreklutamendua eta horniketa zailago egin zen: kanpaina militarrik gero eta luzeagoak bihurtu ziren eta jada ez zen nahikoa gerra-botina; orduan, matxinadarik ez gertatzeko *stipendium* izeneko soldata finkoa ematen hasi ziren. **Soldaduek dirua hiru modutan jasotzen zuten:** soldataren bidez, botinaren bidez (botinik handiena setioetan lortzen zen) eta, azkenik, sarien bidez. Sariak arrazoi desberdinengatik lor zitezkeen: *pilumarekin* lehenengo etsaia hiltzeagatik, harresia igotzen edo kanpamentu batean sartzen lehena izateagatik, beste hiritar baten bizitza salbatzeagatik (hau sari nagusia zen)...

Gerrak luzatu heinean, soldataz gain, leku finkoak hasi ziren sortzen armadak egoteko, hiriak eta kanpamenduak hain zuzen ere → lehen aldi baterako ziren asko behin betikoak bihurtuko dira. Kanpamenduak hirien antzera eratu ziren eta, horrela, foru eta kapitolio modukoak izaten zituzten, *Praetorium* deitzen zena, non jenerala eta aholkulariak egoten baitziren. Esan bezala plaza edo foru moduko bat zegoen eta beharrezkoa zenean soldaduak bertaratzen ziren jenerala entzuteko. Jainkoaren aldaerak

ere egongo ziren. Gero soldaduak legioan zuten posizioaren arabera kokatzen edo ordenatzen ziren; normalean, dendetan egoten ziren, handienetan 6 soldadu sartzen zirelarik. Denborarekin eta lurraldea konkistatuta, kanpamendu hauek hiri bihurtzen ziren eta beraz armada hiri askoren sorreran oinarria izan zen, batez ere mendebaldean. Horren adibide dugu Leon hiria. Horrez gain, Hornikuntza -hau da, dirua eta janaria-ziurtatzeko, armada galtzadak egiten lehena izango da eta soldaduei ordaintzeko dirua konkistatutako hiriei ezarritako zergetatik iristen zen; beraz, gurpil sorgin batean sartzen ari gara: geroz eta herri gehiago konkistatu, zerga gehiago, diru gehiago. Zergarik jasotzeko aukerarik ez zegoenean, isun bat ezartzen zuten, epe luzera ordaindu behar zena.

Mentalitate militarista bat garatu zuten -oso ondo antzeman daitekeena ikonografian- etsaien garaipen titalean oinarritzen dena. Soldaduen garrantzia eta garaituen garapena garrantzitsu izango da mentalitate honen garapenean. Geroz eta konkista gehiago geroz eta gizon gehigao beharko ziren. Kohortetan erreklutatuko dira eta Errepublika garaian zaldun asko egongo ziren, normalean konkistatutako herrietako eliteak izango zirenak. Hauek erromatartu egiten ziren eta, behin gerra bukatuta, Erromako hiriko agente aktiboak izango ziren.

Erromatar armadaren arrakastaren zergatiaren inguruan, eztabaida asko dago. Gizarte osoa konprimitzen da armadarekin eta horri ingelesek “manpower” deitzen diote. Ez zuten arazorik galera guztiak berreskuratzeko, etengabe heltzen zitzaizkielako gizonak. Atzeritarrak bereganatzeko eta erromatar bihurtzeko gaitasuna ere zuten. Funtsean, oso ondo hornitutako armada izan zen eta horregatik horren arrakastatsua izan zen.

K.a. I. mendean Mariok armada profesionalizatu zuen: lehenago bakoitzak bere armak erosi behar zituen, baina Mariorekin hori aldatu zen. Aldaketa momentu horretan gertatu zen, gerra zibilak orduan gertatu zelako eta, hortaz, armada beti eskura izatea beharrezkoa zelako. Horrek ondorioak izango ditu arlo desberdinetan.

3.2. POLITIKA

Esan bezala, erromatar gizartea gizarte militarra zen eta armadan oinarritzen zen. Erromatar hiritarrak izaera bikoitza zuen: *miles* (militarra, soldadua) eta *quirite* (hiritar zibila izatea). Bi kasuetan bozkatzeko eskubidea zuten, baina zentzu desberdinetan bozkatzen zutelarik. Bi dimentsio horiek ezberdintzeko, Erromak, Greziak ez bezala, muga fisiko bat zeukan, *pomerium* (hormatik haratago esan nahi du) izenekoa. Hala ere, ez zen harresi bat, ezta muga fisikoa ere, nahiz eta mugarriak zeuden hiria demarkatzeko; berez, muga zibila zen, Erroma identifikatzen zuena: *Pomerium* barruan zegoena Erroma zen, baina kanpo zegoena ez zen Erroma, baizik eta Erromarena zena. *Pomerium*aren barruan Erromako erakunde nagusiak, Jupiter Kapitolinoren tenplua eta Palatino muinoa zeuden. Bere barruan ezin ziren gizon armatuak sartu, bakarrik *quiritesak* zeuden, bestela, oreka apurtuko zelako; horregatik, hiritarrak soldadu bezala biltzen zirenean *Pomeriumetik* kanpo egiten zuten, Marteren zelaian hain zuten.

Quiritesak berriz Foruan biltzen ziren, senatuaren barruan dagoen *comitium* izeneko tokian eta bertan egiten ziren asanbladek *comitia* izena jasotzen zuten. Muga sakratu hori Erromako magistratu eta sazerdoteek markatzen zuten, eta denboran zehar zabaldu egin zen, bereziki inperioaren garaian, gero eta erakunde gehiago agertu zirelako Erroman. Denborarekin, *pomeriumak* garrantzia galduko du, *milesak* hirian sartzen hasi zirelako arazorik gabe.

Salbuespenez, armada garaile irteten zenean, posible zuten *pomeriuma* zeharkatzea garaipena erakusteko, soilik egunsentian. Suposatzen zen, soldaduak odolez zikinduta zeudela, eta hori dela eta, eskuak garbitu behar zituzten, berriro hiritar zibil bihurtuz. Hiritik desfilatzen zuten bitartean, soldaduek jeneralari nahi zituzten irainak esan ahal zizkioten.

Behin hiritar bihurtuta konstituzio politikoaren eremuan sartzen ziren (**SPQR**). SPQR *Senatus populusque romanus* zen: senatua eta herri erromatarra. *Populus* herria da, baina bakarrik hiritarrek osatutakoa; hauek ziren hirian eskubide politikoak zituztenak, hain zuzen ere, armadan zerbitzatzen zutelako eta hiria defendatzen zutelako. Hau da, erromatarrek *populus* izaera armadan zerbitzatzeagatik eskuratzen zuten; izan ere, soldadu izatean hiriko defendatzaile bihurtzen ziren eta komunitatearen biziraupena bermatzen zuten. Hori dela eta, eurek soilik zeukaten hiria gobernatzeko eskubide politikoa. Hori kontuan izanda, arrakasta politikoa edukitzeko, lehenik eta behin beharrezkoa zen iragan arrakastatsua izatea; izan ere, horrelakorik ez bazuten oso zaila zen sistema politikoan arrakasta izatea (hala ere, beti zegoen iragan hori exageratzeko edo asmatzeko aukera).

Armada zerbitzatzean erromatarrek bi gaitasun erakusten zituzten: gehienek obeditzeko gaitasuna erakusten zuten eta gutxi batzuek agintzeko gaitasuna. Hau da, gizartean beti zegoen obeditzen zuen multzo handi bat eta agintzen zuen multzo txiki bat. Banaketa hori esan daiteke, isilpeko adostasun baten ondorioa zela: bakoitzak zegokion lekua pozik onartzen zuen bitartean, gizarte osoa pozik egongo zen, eta oreka mantenduko zen, matxinadak saihestuz. Ez bazen onartzen, ordea, matxinadak (*seditiones*) gertatuko ziren, gerra zibila ekarriko zutenak eta gero *anabasisa* eta hiriaren suntsipena. Errepublika akordio horretan (konkordia) oinarritzen da. Beraz, ez dago berdintasunik, baizik eta adostasuna → batzuk agindu eta beste batzuek obedituko dute.

Hiritar kondizioa janzkeran erakusten zen: toga eta artilezko kapa. Togak militar kondizioa adierazten zuen eta koloreak eta ertzean dauden marren zabalerak ere zure posizio soziala adierazten zuten.

Armada gain, erromatarren maila edo kalitatea bakoitzaren ofizioaren arabera ere neurtzen zen: erromatar ideala, hiritar eta soldadua izateaz gain, nekazaria zen ere bai. Armadak, esan bezala, hiritarra izateko aukera ematen zuen, baina behin kondizio hori izanda, zein motako hiritarra zinen norberaren diruak erabakitzen zuen. Hau da, diruak ez zuen hiritartasuna ematen, baina bakoitzaren maila zehazten zuen.

Hiria sistema politiko zehatz baten arau eta logika onartzen duen gizonezkoen komunitatea zen. Emakumezkoak ez ziren hiritarrak, ezin baitzuten armada parte hartu. Horrela, amankomuneko identitate bat sortzen zen eta errepresentazioa eta jarrerak ulertzen dira.

Erroma hiria zabaltzen joan zen eta hiritar gehiago zegoenez, lur gehiago behar ziren; esaten da horregatik gauzatu zirela konkistak. Erroma inguruan zeuden nekazal lurrak *ager romanus* ziren eta lur horiek bakarrik ziren hiritarrenak; izan ere, beharrezkoa zen hiritarrei dirua edo mantentzeko baliabideak ematea (Soldaduei, *quirites* bihurtzean, askotan, nekazal lursail bat ematen zitzaaien hortik bizi ahal izateko). Gainera, hiritarrak ez zirenek ez zuten lurra izateko eskubiderik. Normalean, *ager romanusa* hiritik gertu zegoen baina denborarekin eta konkistak ugaritzen zoan ziren heinean Mediterraneo osoan zehar zabaldu zen.

3.2.1. Erromatarren sailkapena

Hiritarrak diruaren arabera sailkatzen ziren eta hori tribuetan islatzen zen; Tribuak ez zuen inongo erro etnikorik eta leku huts bat baino ez zen. Hiritarrak bost klasetan (*classis*) sailkatzen ziren: dirudunenek lehenengo klasea osatzen zuten, bigarrena diru gehien zuten bigarrenak... Gauza da ez dakigula zehazki zenbat diru eduki behar zen klase batean edo bestean egoteko. Soilik dakigu lehenengo klasea aberatsena zela eta 5.ena pobreena. Horrez gain, seguruenik azkeneko hiru klaseek jende gehiena bilduko zuten. Armadan ordea modu ezberdinean sailkatzen ziren: alde batetik operatiboak izateko eta bestetik diruaren eta armatzeko gaitasunaren arabera.

Tribua tokiaren araberako sailkapena zen eta faktore horren arabera 35 tribu zeuden: lau hirian bertan eta 31 inguruetan (hauek tribu rustikoak ziren). Printzipioz 5 urtean behin hiritarren errolda egiten zenean hiritar bakoitzak leku bat aukeratu behar zuen bizitzeko, baina berez, zentsoreek, hiritarren mailaren arabera, erabakitzen zuten bakoitza non bizi behar zen. Lekurik onenak tribu rustikoak ziren, hiri barruan liberto asko bizi zirelako eta hauek erromatarrentzat iragan iluna zutelako. Hasieran, seguruenik, tribuak leku fisikoak izango ziren, baina Inperioaren garaian izaera fisiko hori galdu eta zentsu sinbolikoa bereganatuko zuten. Azken finean, bozkatzeko tribu bateko kidea izatea beharrezkoa zen; baina kontuan izan behar dugu Inperio erromatarra zabaltzen doan heinean, hiritarrak lurralde desberdinetan biziko zirela, hau da, ez beti Erroman edo Erromatik gertu. Hau da, hiritarren erroldak inperioko leku desberdinetan egiten hasi ziren, eta kanpoan bizi ziren hiritar hauek tribu erromatar bat aukeratu behar zuten bozkatzeko, fisikoki tribu horren baitan egon ez arren. Edozelan ere, argi izan behar dugu kanpoan egonik, inoiz ez zutela bozkatzeko eskubidea egikaritzen.

3.2.2. Hiritarren errolda

Hiritarren errolda (hau da, sailkapena) bost urtetan behin egiten zen, ez soilik Erroman baizik eta lurralde osoan, eta gero, errolda hori *tabularium*ean gordetzen zen. Zenbakien kontuak eztabaida biziak piztu ditu historialarien artean.

Errolda *pomeriumetik* kanpo egiten zen zentsoreen aurrean; zehazki *villa publica* izeneko eraikinean gauzatzen zen: hiritarrek fisikoki desfilatu behar zuten, armaturik joan behar ziren eta haien ondasunak aitortu behar zituzten; animalia bat izanez gero, hura ere eraman behar zen. Lehenengo mendean hogeita mila bat lagun izango ziren. Zentsoreek galderak egiten zizkieten hiritarrei euren egoera ekonomiaren inguruan eta egia esatea derrigorrezkoa zen; izan ere, norbanakoaren gaitasun ekonomikoaz gain kalitate morala ere neurtzen zen eta, gezurretan harrapatuz gero, horrek esan nahi zuen ez zinela fidagarria (*fides* falta). *Fides* izateak esan nahi du hiritarrek *integritas* zeukala, hau da, osotasun fisikoa zuela eta moralki ere ez zegoela usteldua. Gladiadoreak edota zirkuan aritzen zirenak edo aktoreak ez dira hiritarrak haien gorputza saldu egiten dutelako diruaren truke. Beraien gorputz diruaren ordeztuz saltzen dutenak ezin ziren hiritarrak izan: gladiadoreak, zirkuan lan egiten zutenak, aktoreak... Galera fisikorik izan ezker ezin ziren hiritar bihurtu.

Behin errolda gauzatuta, hiritar guztiak *comitumean* biltzen ziren zeremonia erlijioso bat osatzeko: sakrifizio bat egiten zen hiritar berriei ongietorria emateko. Sakrifizioa *suovetaurilia* deitzen zen → animalia idi bat, txerri bat eta ahari bat sakrifikatzen ziren normalean.

3.2.3. Erabakiak. hiru aktore: bozkatzeko asanbladak, magistratuak eta senatua

Bozkatzeko asanbladak

Hiru asanblada zeuden, baina garrantzitsuenak azkeneko biak ziren.

1. *Comitia curiata*:
2. *Comitia centuriata* (armadaren asanblada): goi mailako magistratuak aukeratzen zituen eta, hortaz, garrantzitsuena zen. Horrez gain, bakea edo gerra aldarrikatzeko eskumena zuten. Ez zen bozkatzeko gizonen arabera, baizik eta zenturien arabera. Oso sistema kontserbadorea zen, eta lehenik zaldunen zenturiekin (aberats eta zaharrenekin osatuak) bozkatzeko zuten, euren hartzen zituzten erabakiak. Marteren zelaian biltzen ziren.
3. *Comitia tributa*: tribuetan oinarrituta zegoen eta behe mailako magistratuak aukeratzen zituen.

Magistratuak

Magistratuak hiria gobernatzeko, administratzeko eta politikoki zuzentzeko helburuarekin hautatutako hiritarrak ziren. Magistratuek *potestas* zuten eta kargua urtebetez egikaritu ostean, hura utzi behar zuten, magistratu ohi bihurtuz. Hala ere orduan ez zen euren karrera politikoa amaitzen, magistratu ohiak senatari bihurtzen zirelako, senatuaren parte bihurtuz. Hala ere, oraingoan ez zuten *potestasik* izango, baizik eta *auctoritas*. Edozelan ere, senatuak erabakitzen zuen guztia betearazi egiten zen; hortaz, sistema aristokratiko batean aurrean gaude. Magistratu gorenenean *imperiuma* zuten, armadaren goi mailako agintea zena. Bakarrik egoten ziren urtebetez karguan soldaduak kontrolatzen zituztelako eta arriskutsua izan zitekeelako botere hori luzatuz

gero. Kargua errepika zitekeen baina ez zen batere ohikoa, eta soilik salbuespeneko edo arrisku egoeretan gertatuko zen:

“En Derecho romano se entiende por potestas el poder socialmente reconocido. Ostenta la potestas aquella autoridad, en el sentido moderno de la palabra, que tiene capacidad legal para hacer cumplir su decisión. El concepto se contraponen a auctoritas o saber socialmente reconocido. Las fuentes de potestas fueron los magistrados (principalmente los cónsules y los pretores) pero también el pater familias en el ámbito doméstico.

El poder que Roma les concedía a los magistrados de manera legal, es decir, la competencia de sus funciones se designaba con el término potestas. La potestas regulaba las diversas jerarquías entre las magistraturas siendo mayor (maior), menor (minor) o igual (par) en poderes comparadas con otras magistraturas

En cambio, el imperium señalaba concretamente el poderío de mando que era otorgado únicamente a las magistraturas de mayor rango, los consulados y las preturas, ya que el magistrado dotado de imperium podía "recibir los auspicios", o sea, interpretar la voluntad divina”.

Goi mailako magistratuen kopurua handitu zenean, itzarote listak sortu ziren, eta hori ekiditeko senatarien kopurua handitu zen.

Magistratuak, hortaz, hautatutako kargudunak ziren eta hiru ardura mota zituzten, magistratura mota bakoitzaren berezitasunekin:

- Militarra: *imperiuma* dutelako.
- Zibila: legeak ezagutu behar dituztelako → senatuak legeak proposatzen ditu, asanbladak horiek onartzen ditu eta gero magistratuek berresten zituen. Batzuetan gerta zitekeen asanblada senatuaren proposamenarekin ados ez egotea, eta orduan, presioa gauzatzen (adibidez, sobornoen bidez...) zen asanbladak proposamenaren alde egiteko.
- Erretorika: hitz egiteko gaitasuna izan behar dute.

Magistraturen artean, ohikoak eta ezohikoak desberdintzen ziren. Ohiko magistratuak normaltasun garaietan agintzen zutenak ziren, eta kargu horietara *cursus honorumaren* bitartez iristen zen. Bestalde, ohikoen artean bi maila bereizten ziren: *maiores* eta *minores*. Bata zein bestearen kasuan, magistratu guzti hauek hurrengo ezaugarri komunak zituzten:

- Izaera kolegiatua: aldi berean pertsona batek baino gehiagok, orokorrean bik, egikaritzen zuten. Horrez gain, magistratu bakoitzak bestearen erabakiak betatzeko eskubidea zuen (*intercessio*); hori bai, bakarrik zuen bestearen erabakia gelditzeko gaitasuna, inoiz ez, eraldatzeko edo ordeztzeko.
- Aukeraketa: magistratu *maioresak comitia centuriata*k hautatzen zituen eta *minoresak comitia tributa*k.

- Doakotasuna: doanik egikaritzen ziren, karguaren egikaritza suposatzen zuen ohore hutsagatik (*ad honorem*).
- Behin-behinekotasuna: karguaren egikaritza denboran mugatua zen. Orokorrean urtebetekoak ziren, zentsorearen salbuespenarekin, 18 hilabetekoa zela. Era berean, berehalako berrautaketa ez zen posible (*iteratio*), berriz ere, zentsorearen salbuespenarekin.
- Gradualtasuna: karguek, oro har, sistema hierarkiko bat osatzen zuten.

Magistratura karguak betetzeko baldintzak desberdinak izan ziren garaiaren arabera. Hasiera batean, patrizioa izatea beharrezkoa zen. Baina denborarekin plebeak ere karguetara iristea lortu zuen. Are gehiago, K.a. 367an, Liziniar legeetan ezarri egin zen kontsuletako batek plebeioa izan behar zuela derrigorrez.

Magistratu *maioresen* taldea kontsulek (*consul*), pretoreek (*praetor*) eta zentsoreek osatzen zuten. Magistratura gorenena kontsulatua zen; ez dakigu hitza nondik datorren, baina batzuek diote aholkua eskatetik datorrela. Urte hasieran -otsailaren amaieran, martxoaren hasieran- hautatuak ziren, esan bezala, *comitia centuriata*ren eskutik. Kontsulek *Imperiuma* zuten, bi eratakoa izan zitekeena: *imperium domi* eta *imperium militiae*. Lehenengoak izaera botere zibileko izaera handiagoa zuen eta hiri barruan egikaritzen zen: bai administrazioan, bai legegintzan, bai justizian, eskumen handiak zituzten -nahiz eta denborarekin, horietako zenbait galdu egin zituzten beste magistratura batzuk agertuz joan ziren heinean-; bere eginkizunen artean, zergak edo *levak* ezartzea eta eponimoak (urteari ematen zitzaion izena) erabakitzea, topatzen ditugu besteak beste. Horrez gain, bortxa eskubidea zuten: modu exekutiboan eta judizialean esku hartzeko eskubidea, baldin eta menpeko batek ez bazituen aginduak betetzen. Bigarrena, Erromatik kanpo egikaritzen zen, eta beste batzuen artean, konkistatutako lurraldeen administrazioa, armada deitzeko gaitasuna eta gerra garaian armadaren buruzagitza biltzen zituen. Laburbilduz, hirian nahiz armadan agintzen zuten.

Erromatarrentzat botererik preziatuena armadarena, hau da, gerra egitea zenez (modu horretan ospea eta aberastasunak lortzen zituztelako, ondo zetorkiena beraiei nahiz familia-kideei boterean egonkortzeko), lehiak ekiditeko kontsul bakoitzak jarduera bakoitza 6 hilabetez egikaritzen zuen. Gainera, erromatarrek kontsentsua eta oreka bilatzen zutenez beti, bi postuak familia lagunei eman beharrean, familia aurkariei ematen zizkieten sarri.

Horiez gain, kontsulek eginkizun erlijiosoak ere betetzen zituzten: hala nola *auspiciumak*, hau da, jainkoen nahiak, interpretatzea. Edozein erabaki hartu baino lehen Jainkoei galdetu behar zitzairen eta horren interpretazioa kontsulak egiten zuen. Orduan augure bihurtzen ziren. Augureak Marteren zelaira joaten ziren eta gehienetan txorien hegaldiak begiratzen zituzten Jainkoen nahiak antzemateko. Gerretan, askotan, ez zegoen aukerarik txorien hegaldiak begiratzeko eta txitak eramaten zituzten eta goizero jaten zutenaren arabera kanpaina erabakitzen zuten.

Kontsularen azpiak pretorea zegoen; biak magistratu *curulak* ziren (*curul*, berez, artazi formako aulkia zen, plegatu egiten zena, eta magistratuak eramaten zuena bere

eginkizunak gauzatzeko, beraz ez zeuden toki edo eraikin zehatz bati lotuta). Pretoreek ere *imperiuma* zuten, baina kontsulek baino neurri txikiagoan eta bereziki justiziaren ardura hartu zuten beraien gain, Erroman nahiz Erromatik kanpo. Inperioaren beharrak handitzen ziren heinean euren kopurua biderkatuz joan zen, 8 izatera arte.

Zentsorea (*censor*), normalean bat zena, bost urtean behin aukeratzen zen senatari zahar eta ospetsuenean artean, eta 18 hilabetez egoten zen karguan. Errolda edo zentsua egiteaz, moralitate publikoa gainbegiratzeaz eta finantza publikoen inguruko zenbait aspektuez arduratzen ziren. *Censor* izan ahal izateko, gainontzeko magistratura guztiak egikaritu behar ziren.

Salbuespenezko kasuetan, hau da, Erroma arriskuan zegoenean (gerra garaian orokorrean), *dictator* bat aukera zitekeen (ezohiko magistratua) botere absolutua izango zuena. *Dictatorra* kontsul batek izendatzen zuen, senatuak aginduta eta aukeratuta, eta 6 hilabete baino ez zen karguan egoten.

Magistratuak egoteko eraikin zehatzik ez zegoenez, magistratuak janzkeraren bitartez desberdintzen ziren, jantzi, toga, kolore eta objektu bereziak eramaten baitzituzten. Horrez gain, sekito edo laguntzaile (*lictor*) talde bat eramaten zuten bat eramaten zuten, normalean, *fascēs* direlako aizkora sinbolikoak eramaten zituztenak, magistratuen *imperiumaren* sinbolo zirenak:

“Desde los comienzos de la República romana, los fascēs eran transportados al hombro por un número variable de lictores, fascēs lictoriae, que acompañaban a los magistrados curules como símbolo de la autoridad de su imperium y su capacidad para ejercer la justicia, como poder de coerción y castigo (el haz de varas para la flagelación y el hacha para la pena de muerte). Sin embargo, después de las leyes de las Doce Tablas, ningún magistrado romano podía ejecutar sumariamente a un ciudadano romano. Dentro del pomerium, el límite sagrado de Roma, los fascēs no podían llevar el hacha, indicando que dentro de la ciudad los magistrados curules tenían derecho de castigar, pero no de ejecutar. Tan sólo al dictador le estaba permitida la inserción del hacha”.

Ondoren magistratura *minores* delakoak zeuden, bi zirenak: altuena *aedila* zen eta baxuena *quaestor*. Bi magistratu hauek ez zuten *imperiumik*, soilik *potestas*. Edileak galtzadak zituzten arazoak... administratzeaz arduratzen ziren; *quaestores*ek altxor publikoa erabiltzeko aukera zuten eta diruaz arduratuko ziren; inperioa handitzean, geroz eta gehiago beharko ziren eta biderkatzen joan ziren. Azken hauek, batzuk hirian geratu eta besteak armadan egoten ziren eta hauek ziren botina jaso eta ondoren kontatu eta banatzen zutenak. Hiri bat konkistatu ondoren, ondasunak zenbatu eta batez ere, esklaboak kontatzen zituzten, izan ere, azken hauek ematen zituzten aberastasun handienak.

Goraino iristeko pauso guztiak eman behar ziren, *quaestero*, *aedile*, *praetor* eta azkenean kontsula izatera pasatu behar zen. Ohore handiena azkenean *censore* bihurtzea zen. Prozesu guztia egiteari *cursus honorum* deritzogu, hau da, karrera publikoa egitea

litzateke. *Cursus honorum* egiteko, lehendabizi beti soldadu egin behar zen: minimo infanterian aritzeko hamar urtez armadan egon behar zuten eta 17-18 urterekin sartzen ziren; zalduna izanez gero ordea, 6 urtez egon beharra zegoen. Lehenengo pausoa *quaestoresa* zen → urtebete egonda kontuak eskatzen zizkizuten asanbladek eta honakoa konplikatua zen diru kontuak beti susmagarriak direlako; hortaz, kargu desatsegina zen eta gazteek okupatzen zuten. Ondorengo, *aedila* delakoa zen, baina denbora pixka bat pasatu behar zen hura egikaritzeko. Hortaz, nahiko zahar zirela iristen ziren kontsul kargua egikaritzera. *Censorea* izateko, 45 urtetik gorako adin minimoa ezarri ohi zen, batez ere mundu guztia ezagutu ahal izateko.

Normalean, *cursus honorum*era joaten zirenak ez ziren legionario hutsak, hau da, ofizialak ziren eta hauek tribunoak ziren. Tribunoak misio adoretuak betetzera bidaltzen zituzten eta froga horiek zure adorea erakusten bazuten, bizitza publikora pasatzen ziren eta *cursus honorum*a hasten zuten. Zesarren gustukoak ordea, zenturioiak izango dira; tribunoengandik mesfidati agertuko baita, tribunoak aristokraziako kideak izanik. Legatuak probintziak ezartzean, gobernadoreak izango dira bertan, baina misio bat egiteko arduratuta egongo dira, baina ez dira maila militarrekoak izango.

Plebearen tribunoak magistratura guztiak aristokratikoak zirelako ezarriko dira. Horrela plebearen interesak defendatzera iritsiko dela adierazten da, baina *sacro santitas* gisara eratzen zen eta horrela, ezin zuten plebearen tribunoa hil; bestela aristokraziak hauek hiltzera jotzen baitzuen segituan: “*El tribunado sería sacrosanto (sacrosanta potestas), lo cual significa que quien la ocupase estaría protegido de cualquier daño físico, y que tendría el derecho de auxiliar a los plebeyos y rescatarlos del ejercicio del poder de un magistrado patricio (ius auxiliandi)*”. *Comitia tributak* aukeratuko ditu plebearen tribunoak; magistratuek zerbait proposatzean plebearentzako ona zen ala ez erabakitzea zen haien ardura eta honakoa magistratura mota bat zen. Urtebeteko epekoa izaten zen. *Parresia* edo hitz egiteko aukera bakarria magistratuek izango dute eta horrela, plebeak bere ordezkapena izango du asanbladatan. Patrizioak plebearen tribunoa kontrolatzeko filiazioa aldatuko dute plebearen tribunoaren goren hartu ahal izateko.

MAGISTR.	JATORRIA	IRAUPENA	BOTEREAK	ESKUMENAK	IZENDAPENA	ADINA	ZENB.	LAGUNT.
Diktadoreak	501 ean agertu zen. Bakarrik egon ziren 249, 217, 216 eta 216ean. 82an Sila. 49-44 Zesar	Arrunta: 6 hilairet. Sila: 2 urte igarota abdikatu zuen. Zesar: urtebetekoa, 10 urtekoa (46) eta betirakoa (44)	<i>Auspici maiores</i> <i>Imperium militiae</i> eta <i>domi</i> . 24 <i>fasces</i> Magistratura guztietan goberna. Ez in da bere aurka <i>provocatio</i> egkaratu	1) Orokorrik (gera edo iraultza) 2) Beretzak: - Etdizioak (clavo del Capitolo) - Hauteskundeak (omniten presidentzia) - Senatu osatzeko (216) 3) Constituyente (Sila)	Kontsul batak izendatu, senatutaren aginduz. - Sila (82): lege batak izendatu. - Zesar (49): lehenik pretore batak izendatuta eta ondoren kontsulak.	180. urteik gutxienez 42.	Bakarra	24 laktore
Kontsula	509 ean sortu. 366: plebetoei irerki	Urtebetekoa. 22,5tik marxoaren lehen inbestitu. 1,54tik urtarrilaren lehen hasi	<i>Auspici maiores</i> <i>Imperium militiae</i> eta <i>domi</i> . 12 <i>fasces</i> Herrarekin lan egiteko eta Senatutari informatzeko eskubidea. <i>Provocatio</i> ren menpe	1) Irutiarren zeintua 2) Senatutaren <i>lectio</i> (examen de la orden ecuestre) 3) <i>Cura morum</i> (ohinuen azterketa → santizioak 4) Estanuko ondarearen gestioa: - mantentzea, erakirik - sarreta publikoa eta - horniduren esleipena.	Kontsul edo diktadore batak presiditutako <i>comitia centuriata</i> aukeratuta.	180. urteik gutxienez 42.	Bi Salbuespe nez, 52an Pompeio bakarra izan zen.	12 laktore <i>Præcones</i> <i>Tratores</i>
Zentsorea	443an sortu.	5 urtero hautatu. Traupena: 18 hilairet.	<i>Auspici maiores</i> <i>Potestas</i> Jurtsdiktoria (zenbait finantza-kontu) Isunak ezartzeko eskubidea.		Kontsul batak presiditutako <i>comitia centuriata</i> aukeratuta.	44 gutxienez (orokorra n askoz gehiago)	Bi	Laktoretik ez <i>Præcones</i> <i>Juratores</i> Eskritbak
Pretorea	366: P. urbanoa 242: p. peregrinua 230: Sardunakoa eta Siziliakoa.	Urtebetekoa	<i>Auspici maiores</i> <i>Imperium militiae</i> eta <i>domi</i> . 6 <i>fasces</i>	-Sila aite: eskumen judiz. eta polit. Erroman. armaden agintariza eta probinzietan goberna. Sila ostean: eskumen judiziala soilik Erroman. 80tik aurrera: pretore bakoitza epaimahai espezializatut bat presiditu.	Kontsul batak presiditutako <i>comitia centuriata</i> aukeratuta.	180. urteik 39.	Bi, lau, sei eta azkenik 8.	2 lik. Erroman, 6 probinzietan. <i>Præcones</i> ,
		Jurtsdiktoria zibila Eskritbak ataratzeko eskubidea Herrarekin lan egiteko eta Senatutari informatzeko eskubidea.						<i>Juratores</i> , Eskritbak Pret. delegatutak justiziarako eta epaimahaiak auzitegiak osatzeko

MAGISTR.	JATORRIA	IRAUPENA	BOTEREAK	ESKUMENAK	IZENDAPENA	ADINA	ZENBAK	BALDINTZ.
Aedilis	2 edili plebeio 496an 2 edili <i>curuli</i> 366an 2 edili <i>ceriales</i> 460an	Urtetebete.	<i>Curules</i> ; aulkari kumula; <i>ius imaginum</i> ; etab <i>Plebejus</i> <i>Potestatis</i> Jurisdikzio zibotia (sahamenera) honetako prozesuak) Eskutu bat argitaratzeko eskubidea. Isunak ezartzeko eskubidea.	- Merkatarian ikuskaritza. - Komunikazio bideak eta horien konponketak. - Errotaren horniketa. - Errotariar jokoan, plebeio-jokoan erantzukizuna. - Zenbait auzitegiaren presidentzia. - 2 kuestore urtekoak: Aitxorraren gestioa (dirua eta tirubak). - 4 kuestore kourtsularrek- artxoak - 2 kuestore "trialkoak": transmuntatza bideak eta akueidunak. - Kuestore probintzialak eta militarrek (2 Sizilian): finantza-kontabilitatea. - Zenbait auzitegiaren presidentzia.	Kourtsulu edo tribuno baten presidentziako <i>comitia tributa</i> antzeratua → Kourtsula edile kuruleuzko eta tribunoa plebearen edileentzako.	36 urte	4, geno 6 (Zesarren garia)	Kuestore kargua egikaritu izama.
Quaestor	Seguruenik monarkia akirik. 4 ziren Errepub. Hasieran 197an 10 ziren 80an 20.	Urtetebete. Karguan hasien diru abonatuaren Sean.	<i>Potestatis</i> <i>Sella</i> (Oaina ez kumula) Jurisdikzioa (<i>amquitio</i> , inbestigazioa) Aitxorraren kontableak Siltak aurera Senatua sar datiezek	- 4 kuestore kourtsularrek- artxoak - 2 kuestore "trialkoak": transmuntatza bideak eta akueidunak. - Kuestore probintzialak eta militarrek (2 Sizilian): finantza-kontabilitatea. - Zenbait auzitegiaren presidentzia.	Kourtsulu baten presidentziako <i>comitia tributa</i> antzeratua.	30 urte.	- 10 197. urteik. - 20 80. urteik 45. urtera. - 40 45. urte aldera.	- 10 urteko zabotzu militarra. - Tribunado militarra ia beti. - Zaldun zentzua edukitzea.
Tribunus plebeis	496an sortu ziren plebearen maistratu gisa soilik. 366rako integratu ziren. Senatari batur datiezek, beste karguak egikaritu gabe <i>Lex Annalis</i> (K.a. 149-123)	Urtetebete. Karguan hasien diru abonatuaren 10ean.	<i>Sacrosanctia Potestatis</i> <i>Subsidium</i> (Oankua) <i>Auctoritas</i> <i>Veto</i> , <i>intercessio</i> Akusatzaileko eskubidea (<i>amquitio</i>). Isunak, hariorra zigorra. Plebearekin lan egiteko eskubidea.	- Eskumen erabat orokorra. - Magistratuen edozein akzio eta senatuen edozein kontsulta (<i>senadocensura</i>) aurkariari dezaizete, baina ez searuentzia induzial bat. - Bereziki: plebitzina hasreko eskubidea.	Tribuno baten presidentziako <i>comitia tributa</i> antzeratua.	27-32 urte.	10	- Plebeioa izatea.

	<i>Comicios curiales</i>	<i>Comicios centuriados</i>	<i>Comicios tributos</i> <i>Concilium plebis</i> (llamado también <i>comicios tributos</i>)
Unidades de voto	30 curias, 10 en cada una de las tres antiguas tribus étnicas	193 centurias: 18 de <i>equites</i> , 170 de <i>pedites</i> (clasificadas en el siglo II a. de J. C. en cada una de las 35 tribus: 2 grupos de edad y 5 clases censitarias); 5 centurias sin armas	35 tribus: 4 urbanas, 31 rurales
Ciudadanos presentes	El pueblo ausente. A finales de la República, cada curia representada por un licitor	Abiertas a todos los ciudadanos	Abiertas a todos los ciudadanos Abiertas a todos los ciudadanos
Magistrado que preside	Cónsul, pretor (o <i>pontifex maximus</i>) (con auspicios)	Cónsul o pretor o, antes del 201, dictador. En ausencia de los cónsules, al principio del año, un interrex (con auspicios)	Cónsul o pretor; algunas veces (para la jurisdicción) edil cural (con auspicios) Tribuno de la plebe, edil de la plebe (sin auspicios)
Elecciones		Cónsules, pretores, censores	Ediles curules, cuestores, tribunos militares, magistrados especiales Tribunos y ediles de la plebe y algunos magistrados especiales
<i>Rogationes</i> (textos) a) legislativos	Votan la <i>lex curiata</i> que confirma el <i>imperium</i> de los magistrados. Confirman las adopciones y algunos testamentos (bajo la presidencia del <i>pontifex maximus</i>)	Al principio, el principal órgano legislativo del Estado. Utilizado raramente desde el 218, salvo para las declaraciones de guerra y para confirmar el poder de los censores. Ley sobre el regreso de Cicerón en el año 57	Legislación de todo tipo La mayor parte de las leyes son propuestas por los tribunos de la plebe. En su sentido propio, plebiscitos; tienen valor de ley desde el año 287 a. de J. C.
b) judiciales (sobre todo antes de fines del siglo II)		Para las acusaciones capitales. En el siglo I a. de J. C. limitados a las acusaciones de <i>perduellio</i> (alta traición)	Para los crímenes de Estado castigados con multas Juicios frecuentes ante los tribunos, especialmente ante la institución de los tribunales permanentes
Lugar de reunión	Comitium (Capitolio)	Fuera del <i>pomoerium</i> , casi siempre en el Campo de Marte	Para las elecciones, a finales de la República, Campo de Marte Para legislación y juicios, Foro o Capitolio (una vez en el circo Flamínio)

Senatus

Senatus magistratu ohien asanblada zen, *auctoritas* izango zuena: gomendioak ematen zituen, baina ez zuen agintzen, bigarren hau magistratuei baitzegokien. Legioetako kokapena eta urte horretako gerrak zein izango ziren erabakitzen zuten, beraien beharren arabera. Diplomaziaz arduratzen ziren eta kanpoko enbaxadore gutzietan harrera egiten zieten, informazioa eskuratzeko: atzerritarren jarrera zein zen galdetu eta atzerria nola zegoen adierazten dutelarik. Herri edo hiri atzerritar baten lagun izan nahi bazuten *foedus* bat egiten saiatzen ziren, eta ezetz esanez gero, gerra egiteko aitzakia izango zen. Erromatarren *amicitia* ukatzea umilazio arrazoia zen, eta ondorioz, ospea finkatzeko gerra deklaratzeko justifikatuta zegoen.

POLIBIO 6

“Lo primero en que manda el Senado es en el erario. Nada entra ni sale de él sin su orden. Ni aun los cuestores pueden expender alguna suma en los usos particulares sin su decreto, a excepción de lo que gasta para los cónsules. Aun para aquellas grandes y considerables sumas que tienen que gastar los censores todos los lustros en reparo y adorno de los edificios públicos, es el Senado quien les da su autorización para tomarlas. Asimismo, todos los delitos cometidos dentro de Italia, que requieren una corrección pública, como traiciones, conjuraciones, envenenamientos y asesinato, son de la jurisdicción del Senado. Es también de su inspección ajustar las diferencias que se originen entre particulares o ciudades de Italia, castigarlas, socorrerlas y defenderlas si lo precisan. Si es menester despachar alguna embajada fuera de Italia para reconciliar las potencias, exhortarlas o mandarlas que emprendan o declaren la guerra, es el Senado quien tiene esta incumbencia. De igual modo da audiencia a los embajadores que vienen a Roma, delibera sobre sus pretensiones, y da la conveniente respuesta. En nada de cuanto hemos manifestado tiene que ver el pueblo; de suerte que si uno entra en Roma a tiempo que no estén los cónsules, le parecerá su gobierno una pura aristocracia; concepto en que están también muchos griegos y reyes a la vista de que casi todos sus negocios dependen de la autoridad del Senado.”

Errepublika berantiarrari buruz, Zizeronek idazten digu gehienbat eta Polibiok, Errepublika ertainari buruz hitz egiten digu. Polibio greziarra izango da eta Zizeron erromatarra. Polibio Megalopolis hiriko estrategós edo jenerala zen, beraz goi-mailako pertsonaia zen bere hirian. Megalopolis Peloponeson zegoen, eta Akeotarren ligan egongo litzateke. Erroman bahitu edo garantia bezala hartu zuten, akeotarren ligaren leialtasuna bermatu ahal izateko. Goi mailako kidea zenez, erromatar familia batek, hau da, Cornelii Scipionisek hartu zuen idazlea, ikasketak emateko beren seme-alabei, hau da, honakoen tutorea izango delarik. Tutore edo irakasleak Erroman askotan esklaboak edo libertoak izan ohi ziren. Bertan mundu helenistikoaren Historia delako liburua adierazten hasi zen, eta zergatik erromatarrek berrogeita hamar urtetan konkistatu zuten mundua adierazi eta zergatik greziarrek ez zuten halakoa gauzatu adierazi zuen. Greziarrentzat, greziarrez idatziko du, Erromako inperioa nolakoa den adierazteko idatziko duelarik. Testu honetan, greziarrek nola justifikatzen duten erromatarrek politika egiteko zuten modua adierazten da.

Erromatarrek miretsi egiten ditu Polibiok eta Mediterraneoan onenak izan direla adierazi zuen eta idazle honengatik irteten dute Historia Garaikidean inperialismoaren ideia jorratuko dutenak, berdinen arteko lehia batean Mediterraneoan.

Idealizazio puntu bat izango du beti, greziarrentzat eta miresmenetik azalduta baitago. Liburu guztiak ez dira kontserbatzen, bakarrik inperio bizantziarrak bere nahientzat erabilgarrienak zirenak adierazi ziren, gerrari, konstituzio politikoari eta diplomaziari zegokiena baino ez zieten kopiatu. Zati batzuk ez dakigu dauden, eta toki bakoitzean Polibioren liburuak modu ezberdinean daude ordenatuta. Ingelesak Diodoro

Siziliakoarekin eta Polibioren ordenakuntzarekin guztia aldatzen ari dira. Ikuspegi zatitua dugu. Kontserbatu denaren artean, VI. liburua da ondoen kontserbatu dena, eta Erromako konstituzio politikoari eskainia dago eta honakoa, politeia delakoa izango da. Greziarrentzat *politeia* ezagutzea, hau da, sistema politikoa definitzea garrantzitsua litzateke eta horregatik Polibiok lehenengo sistema politikoa adierazten du. Polibiok, greziarren *politeiaren* ikuspuntutik, erromatar egiturari, ez aristokrazia, ez demokrazia... ez direla aurkitzen adierazten du eta beraz, senatuak gobernu aristokratikoa dela adierazten du, demokraziari buruz hitz egiteko asanbladak adieraziko ditu eta magistraturek monarkiari buruz hitz egiteko aukera ematen diote; teoria honen arabera, hau da, greziarren konstituzio tradizionaletik gora egin zutela erromatarrek eta horregatik egin zutela aurrera greziarrek ez bezala adierazten du Polibiok. Konstituzio mistoa, ez zuen inoiz Polibiok honako hitza erabili: senatuaren kompetentziak azaltzen ditu konstituzio mistoaren arabera. Konstituzio mistoaren arabera, erromatarrek ez zuten beren burua horrela ikusten, hau da, *res publica* gisara ikusten zuten, konstituzio mistoarekin, sistemak aurrera egiteko oreka hartu dute.

Konstituzio mistoa eta armadaren boterea edo *manpower* delakoarekin, Polibiorentzat, erromatarrek, Mediterraneoan irabazi zuten eta greziarrek hori egin behar zutela adierazi zuen eta beraz, greziarrek elkarren arteko lehiagatik ... ezin zuten aurrera egin.

Senatuaren boterearen iturria, Polibiorentzat, altxor publikoa kontrolatzen duelako adierazten du. Senatuaren boterea, diruaren kudeaketan eta konstituzio mistoan oinarrituta.

1. Dirua; dekretua. *Senatus consultum* edo senatuaren erabakiak ematen direnean. *Autoritas* baino ez duelako bere iritzia edo *consultum* delakoa ematen du. *Questores* (dirua kudeatu eta kontsulei ematen, behe magistratuak dira eta goi mailakoak dira; kontrabotereek oreka ekartzen dute eta orekak, adostasuna: *consensus* eta *concordia*, konstituzioak funtzionatzeko horretan oinarritu behar dira), kontsulak eta zentsoreak (Erromaren horniketa publikoa edo itxura) ezinbestekoak dira eta aipatzen ditu. *Lustros*: bost urtean behin adierazi nahi du.
2. Justizia: eragin publiko eta pribatua hartzen ditu kontutan. Zuzenbide publikoa: Odolezkoak eta *res publicaren* aurka egindakoak izango lirateke, hau da, goi mailakoak izango liratekeenak. Traizioa, komunitatetik kanpo talderen bat osatzea; *res publicaren* aurka aritzeko talde bat egitea, konjurazioa; pozoia, traizioa, izan ere, erromatarrek ezpataz hiltzen dira. Asasinatuak, magistratuen aurkakoak izaten ziren. Zuzenbide pribatua: pertsonak eta hiriak modu berdinean tratatzen ditu, beraz, *res publica* eta pertsonak berdinak izango dira; beraz, hiri oso bat zigortzeko, laguntza katastrofea eta defendatzeko erasoak izan badira dira. Hori guztia egiteko, pretoreak erabiltzen ditu. Pretoreek, partikularren eta hirien gauzak epaitzen zituzten, baina *crimen de maiestatis* edo goi mailakoak, senatuaren eskuetan egongo dira. Pretoreek, senatua delegatzen dute.
3. Diplomazia: erromatar enbaxadoreek, bakea edo gerra egiten dute eta hori senatuak bultzatuta egiten dute, hori greziarrentzat, baina erromatarrentzat behin

ere holako kompetentziak erromatarren arabera ez zituzten izan. Intimidazioa egiteko gai izango dira, beren atzean armada bat izango dute. Harrera egingo diete kanpoko enbaxadoreei, eta gauzak eskatzera etortzen ziren, egun batzuetan kontsultatu eta *senatus consultuma* eman ondoren, enbaxadoreek honakoa bete behar zuten. Erromako kanpo politika senatuaren eskuetan izango da. Bitartekari lana egin beharko dute greziarrek greziarrentzat, aldiz, erromatarrek besteen gainetik jartzearen arabera hartzen zuten.

Azken finean, konstituzio mistoa izanik, boterea senatuaren arabera dago, baina erromatarrentzat magistratuen eskuetan zegoen *potestas* delakoa, baina kanpotik greziarrek argi ikusten zuten senatuak zuela botere nagusia.

3.3. ERLIJIOA

Erromatarrek pentsatzen zuten jainkoekin itun bat izan behar zutela, eta hitzarmen horren arabera, gauza batzuk -errituak- egin behar zituztela eta, ongi eginez gero, jainko-jainkosak pozik egongo zirela eta, horrela, erromatarrentzat gauza onak eskainiko zituztela; horri *pax deorum* zeritzoten. Hau da, *Pax deorum* maila erlijiosoan garrantzitsuena zen eta jainkoekin ondo konpontzea litzateke. *Pax deorum* ez zen sinesmenean sartzen eta *res publicaren* aldeko gauza izanik, derrigorrez egin behar ziren errituak. Egiten zuten guztia, jainko-jainkosekin bakean egoteko egiten zuten eta gauza arraroak -ekaitzak, esnezko euriak- gertatzen zirenean, jainko-jainkosekiko hitzarmena apurtzen ari zela uste zuten, eta berriro ere errituak egiteko beharra aldarrikatzen zen.

Erromatarrentzat jainko-jainkosak super gizakiak ziren. Erljio publikoa ez zen sinesmenetan oinarritzen, baina pribatua bai; bigarren, hauek sinesmen arruntak izango ziren: gaixotasun bat sendatzeko.... Erromatarrek ez zuten gauza abstraktuetan eta beraz, gorputzezko jainkoak nabarmentzen zituzten eta ez gorputzik gabeak. Sinesten zuten guztia gorpuztu edo materializatu egiten zutenen, estatuak egingo zituzten, eta horrela, jainko-jainkosak estatua horretan gorpuzten zirela pentsatzen zuten. Jainkoak horren presente izanik (ikusitako eta ukitutako zitezkeen estatuak edonon baitzeuden), jainko eta gizakien arteko hitzarmenak indar handiagoa hartzen zuen. Erljioa, gainera komuna zen, beren burua, erritu publikoen bidez adierazten baitzuten eta, guztiek elkarrekin praktikatzeko zuten modu kolektiboan, jainko-jainkosak existitzen zirenenaren inpresioa indartsuagoa zen. Horrez gain, askok fisikoki jainko-jainkosekin topo egingo zutela adierazi zuten; hori bai, inork ikusiko ez zituzten leizeetan, basoetan... kokatzen zituzten jainko-jainkosen kontakizunak, guztiek ez baitzuten han ikusteko aukera.

Beraz, erromatarrek JAINKOEN PRESENTZIA antzematen zuten, fenomeno naturaletan bitartez, baina baita jainkoen estatua ugari zeudelako hirian. Erromatarrek jainkoen *images* erraldoiak ikusi zituzten Greziarekin kontaktuak areagotu zirenean, eta horretarako ohiturarik ez bazuten ere eredu hori bereganatzen hasi ziren. Handienetako Zeusen irudi bat izan zen, Jupiterren moldera moldatu zutena.

Iupiter Capitolinus-en irudia Erroma osotik zabaldu zen. Erljioa eta politika erabat lotuta zeuden, ez ziren desberdintzen. Iupiterrek Marterekin eta Minervarekin triada capitolina osatu zuen. Hau ere, mitologia greziarretik kopiatuko dute: Jupiter = Zeus, Minerva = Atena eta Marte = Ares.

Komunitatearen erlijioa zenez, erlijioak ez zuen mugarik eta jainko-jainkosen espazioak guztiak ziren. Errepublikaren garaian jainko-jainkosen kontzeptua ez zegoen argi, hauei buruzko arrazonamendurik ez zegoelako. II. mendean greziar konkistarekin, jainko-jainkosen arrazionalizazio kontzeptu bat ezarri zen eta erromatar jainko-jainkosa publikoak greziartu egin ziren, helenismoaren kutsadura izango zutelarik.

Jainko-jainkosekin bi modutan jartzen ziren harremanetan, otoitz egiten eta errituak betetzen, gauzak eskatu eta eskertzeko egingo dituztelarik. Erromako jainko garrantzitsuena Iupiter Optimus Maximus zen eta Capitolioan zegoen: jainko instituzional nagusia, estatuko jainko nagusia, zen eta ez etxeko jainkoa. Berarengana, errepublikaren salbazioa eta babeska eskatzeko, magistratura karguak hartzean eta bukatzean eskertzeko, jeneralak Erromara iristean triunfoa eta botina eskaintzeko... joaten ziren. Enbaxadore kanpotarrak, baita, opariak eskaintzera joaten ziren Erromara iristean senatuaren baimenarekin. Horrez gain, tratatu guztiak bertan gordetzen ziren.

Erromatar administrazioa iritsiko ez zen tokietan, Jupiterren aldea ezartzearekin, erromatar presentzia bertan zegoela adieraziko zen; esaterako, Galizian Jupiterren aldea piloa egongo ziren. Inperioko hiri gehienetan capitolio bat ezartzen zen Jupiterren irudiarekin, Erromarekiko leialtasuna adierazteko. K.o. III. mendeko enperadoreek, Jupiterrekin identifikatuko dute beren burua, Erromaren boterea mantentzeko asmoz.

Venia barkamena litzateke, *pax* ituna, *sinere* onartu eta *velle* ez onartu eta erlijio testuetan agertzen dira gehienetan. Erromatar erlijioa ekintzez osatuta dago, ekintzak egin behar dira jainkoen presentzia ikusi ahal izateko.

Erljio erromatarraren hitz garrantzitsuena *sacer* zen: zer den sakratua, jainkoekin zer ikusia. *Religio* erromatarrentzat ez da teologia, ez da sinesmena, hau da, gizakiaren jarrera sakratuaren edo *sacer* delakoaren aurrean litzateke, eta beraz, ona edo txarra izan dezakegu; errituak ... hori izango litzateke *religio* delakoa. *Pietas*, errituak ezagutu eta bete; erromatarrek konkistatzean ez dute beraien erlijioa inposatzen, beraien jainkoak ordea nagusienak direla onartu beharra dute; sistema administratiboan baino ez da egin behar honakoa; arazoak konpontzeko, sinkretismoa, hau da, jainko indigena eta erromatarrak elkartzea egiten dute, beraien jainko-jainkosekin antzekotasuna dutenei, izen latindarra emango zaie; gerraren jainko-jainkosa indigenei Marte aurretik eta ondoren, Tutatis ezartzen zien; batzuetan bakarrik jainko-jainkosa indigenen izenak ezartzen dira, baina erromatar ezaugarriekin, trantsizioa oso gogorra ez egiteko egiten zuten; igarkuntzaren kontuak ez zituzten onartzen eta judutarren jainkoa ez zuten onartzen, Jupiter Optimus Maximusen nagusitasuna ez baitzuten judutarrek onartzen, eta beraiena ahalguztiduna zen eta beti liskarrak izaten zituzten horregatik; judutarrentzat horregatik hiritarrak izatea oso zaila zen. Alexandrian, judutarren

komunitate garrantzitsua zegoen Egipton eta bertan, judutar eta greziar taldeak egiten zituzten eta erromatarrek greziarrak judutarren kontra erabiltzen zituzten. Erromatarrentzat botere administratiboa zen Jupiterrena eta judutarrentzat beren izaerarekin lotuta zegoen. *Pax deorum*, jainkoen onarpena eta babesa (*ira deorum*) delakoa adierazten da.

Jainko-jainkosek beren tokia zuten bizitzeko eta jainko-jainkosen boterea nonahi zegoen Erroman, baina bakoitzak bere jabetza zuen eta honetarako *consecratio* egiten zuten, toki hori sakratu bilakatuz. Jainko-jainkosen lekuak Erroman hiru motatakoak dira: *templum* jainko-jainkosaren eremua izango da, eta eraikina *aedis* delakoa izango da, eta jainko-jainkosek aukeratuko zuten *templum* delakoa. Jainko-jainkosak bere tokia Erroman, tximisten bidez adierazten zuten eta tximista erori zen tokia sakratua bilakatzen zen, jainko-jainkosek hala adierazi zutelako eta horren inguruan *aedis* edo jainko-jainkosaren eraikina eraikiko zuten. Etxeetan jainko-jainkosen presentzia ere nabaria izango da eta horregatik *sacrariumak*, hormetan irudiak edo aldareak egongo dira. Jainko-jainkosen presentzia adierazteko, aldarea jartzen zen, tximista erori zen tokian. Podiumaren gainean, *cella* deituriko jainko-jainkosaren etxea ezartzen zen eta bertan ez zen inor sartzeko, eskariak, votumak ... eskailetan, tenpluaren aurrean edo *vestibulum* delakoan ezartzen ziren. denbora bat pasatzean, magistratuak guztia hartu eta zabortegetara eramaten zituzten. Tenplua osoa polikromatua egon ohi zen. Harrizko tenpluak K.a.I. mendekoak dira, errepublikarrak adobe eta zurezkoak izaten ziren eta asko erretzen ziren eta, frontoian ere, eskaintzak zintzilikatzen ziren.

Tenplu guztien aurrean zegoen aldarean egingo zituzten sazerdoteek ekitaldi erlijiosoak, *cellan* ezin baitzuten sartu. Kapitolioko tenpluan, jainko bakoitzak bere *cella* propioa zuen, *cellak* ezin baitziren partekatu; esan bezala, pertsonak ere ezin ziren sartu, jainkoen etxeak zirelako, jainkoen jabego pribatuak. Hala ere, ateak irekita utzita estatuak ikus zitezkeen. Horrela eskaintzak kanpoan, *vestibulum*ean, zeuden putzu eta aldareetan uzten ziren.

Kapitolio ondoko tenplu txikiak erromatarrek jainkotutako kontzeptu politiko txikiak ziren *-fides* (fidelatasuna), *libertas* (askatasuna), *concordia* (akordioa)-, *sacro sanctitas* ematen ziena. *Sacro sanctitas* horrek esan nahi du 3 balore horien aurka joanez gero, jainkoen zigorra jasotzeaz gain, zigor politikoa ere jasoko zutela. Beraz, sakralizatu egiten ziren hauei fidelak izan ahal izateko.

Erljioaren presentzia hirian, EGUTEGI ERLIJIOSOAREN bidez adierazten zen. Magistratuek *feriaeak* (jai egunak) izendatzen zituzten eta, egun horietan, ezin zen lanik egin eta *ludi romani* edo joko erromatarrek ospatzen zituzten. Jai egunetan egiten ziren jokoek *ludi scaenici* izena zuten, eszenario batean egiten zirelako. Hiru joko mota zeuden, gladiadoreak, antzerkia / dantza / musika / poesia eta zaldi lasterketa, eta joko horiek normalean jainko baten omenean egiten ziren.

Jokoez gain *pompae* ere zeuden, jainkoen omenezko prozesio erlijiosoak zirenak, eta horietan hiri guztian zehar jainkoaren *imagines* delakoak desfilatzen ziren, sazerdoteekin eta jarraitzaileekin batera, beraien kultura erakusteko. Ekialderako irekiera

gertatzean, ekialdeko influentziak iristen hasi ziren Erromara, eta hauek prozesio handiak egiten zituzten euren kultuak ezagutarazteko. Zibeles Asia Txikitik etorri zen (harri beltz bat omen zen), eta erromatarrentzat oso exotikoa zen, eta izugarrizko prozesioa gauzatu zen. Oso ikusgarria zen, odolezko erlijioa zelako, eta hautagaiek sazerdote bezala iniziatzeko euren burua kastratu behar zuten. *Lupercalia* deituriko jai zehatz batzuetan, gazteak ateratzen ziren normalean otsoz jantzita, eta neskak astintzen zituzten latigoekin, ugalkortasun errituak zirelako azkenean.

Pompa garrantzitsuenak garaipen militarrekin zerikusia zeukan, *Jupiter Capitolinoren* omenez egiten zen eta *pompa triumphalis* deitzen zen. Zentsu erlijioso handia zuen eta, batez ere Jupiterri garaipena eskaintzeko eta eskertzeko egiten zen. Prozesioak hiri osoa zeharkatzen zuen, lehenengo atetik sartuz Jupiterren tenplua iritsi arte. Garaileak gatibuak, botina... eskaintzen zizkion Jupiterri eta honek berrespina ematen zion garaileari, hiria salbu zegoela adieraziz. Prozesio luzeak izaten ziren, armada osoak desfileatu behar zuelako hiritik; kontuan hartuta armada gero eta handiagoa bihurtuko dela, hiriak gero eta jende gehiago edukiko zuela eta forua eta *via sacra* oso estua zela, eta ondorioz oso astiro zihoan → bi egun irautera iritsi ziren. Jeneralek pompa hori ospatzeko baimena eskatu behar zioten senatuari; izan ere, *pomeriumaren* barnean armatuta zeuden gizon kopuru handia, bost legio edo 25.000 soldadu, sartzen ziren. Eskaera hori egin ahal izateko jeneralek hildako, gatibu eta diru kopuru zehatz bat lortu behar zuten eta hori demostratzeko senatuaren aurrean lekukoak eramaten zituzten → dena ondo ateraz gero, senatuak triunfoa ospatzeko baimena ematen zuen (ez zen erraza lortzea eta ohore handiena zen). Edozelan ere, eta nahiz eta, *pomparik* ez egon, garaipenagatik jeneralak beti lortzen zuen *ovatioa* → senatuak jenerala txalotzen zuen. Senatuak erabakia hartzen zuen bitartean soldaduak Marteren zelaian geratu behar ziren itxaroten eta, behin baimena eskuratuta, sartzen ziren.

Erromatarrei gerraren nondik norakoak eta ondorioak ezagutarazteko, desfilean zehar, gatibuak, mapak, gerraren irudikapenak... eramaten zituen armadak. Saldu beharreko esklabo guztiak eta gatibu garrantzitsuak eramaten zituzten erromatar jendeak ikusi ahal izateko. Etsai gatibuak orokorrean ez ziren prozesioan hiltzen salbu eta oso garrantzitsuak zirenean, Vercingetorixen kasuan bezala. Orokorrean, *Alba Regiara* bidaltzen zituzten, bertan ustel zitezen, eta haien seme-alabak erromatartzen zituzten, gero konkistatutako tokietan gobernari bezala ezartzeko. *Pompa triumphalis* honetan, soldaduek jeneralari irainak bota ziezaioketen eta pentsatzen zuten guztia adierazten zioten, baina prozesioa amaitzean berriro diziplina erreperatzen zuten. Horrez gain, jeneralaren atzean esklabo bat joaten zen, jeneralari gogoratuz gizon bat baino ez zela (*memento mori*).

Jupiterren tenplura iristen zirenean, *triumphator* edo jeneral garaileak botina eskaintzen → bataila hoplitikoa izaten zenean, saria txikia izaten zen, baina setioa emanaz gero, saria handiagoa izaten zen; horregatik setioak egiten saiatzen ziren beti. *Coronaeak* kondekorazio gisa banatzen ziren hurrengo egintzengatik: *corona muralis* harresia igotzen lehena izateagatik, *corona vallaris* etsaien kanpamendua erasotzen lehena izateagatik, hiritar baten bizitza salbatzeagatik... beraz, adorea saritzen zen

(koroarekin batera, diru kantitate bat ematen zen). Jeneral irabazleari aurpegia gorritz margotzen zioten eta toga *picta* janzteko aukera zuen ere, gorria Jupiterren kolorea zelako (ez da izango dibinizazio bat inperiora arte, baina Jupiterren gorpuztuko da momentu batean).

Hiritarrek loreak / arrosak jaurtitzen zituzten, garaipen palmak astintzen ziren, eta usoak askatzen zituzten, usoak Jainkoen mezulariak zirenez, hauei garaipenaren berri emateko. *Cornicines*-ek pausoa markatzen zuten, hau da, *pomparen* erritmoa markatzeko erabiltzen zen eta *tibicines* delakoak estandartea ematen duenak izango dira. Errepublika garaian egurrezko garaipen arkuak eraikitzen ziren, armada azpitik pasatzeko eta gero hurrengo egunean kendu egiten ziren. Horietan loreak ezartzen ziren.

Erlijioaren ANTOLAKETA erakundeen ikuspegitik. Sazerdoteak bi modutan aipatzen ziren: *sacerdos* eta *flamines*; antzekoak ziren, baina bigarrenak jainko nagusietara eta enperadorearen kultura dedikatzen ziren. Dena den ez ziren errealitate isolatuak, pertsona bat sazerdotea izan zitekeelako eta hiritar zibila aldi berean; salbuespenez, *flaminesak* bizitza osorako karguak ziren. Gauza da, diru mordoa behar zela sazerdote izateko, erritu guztiak eta tenpluaren zainketa sazerdoteek beraien poltsikoetatik ordaindu behar zituztelako, eta ondorioz, bigarren mailako erlijio asko berehala desagertzen ziren, inork ez zuelako sazerdote izan nahi. Laguntza ekonomiko bakar bezala, fidelek egindako dohaintzak zituzten.

Emakumeek ere erlijioan parte hartzeko aukera zuten: batetik, bazeuden *flaminicae* delakoak, *flaminesen* emazteak zirenak, baina ezin zirenak sazerdoteak izan; bestetik, *vestalak* zeuden. *Vestalak* birjin sazerdoteak ziren, sei urterekin hautatuak ziren, 30 urtez Vesta jainkoaren zerbitzuean egoten ziren eta Erromako su sakratua zaintzen zuten; sua itzaliz gero, zigortu/jipoitu egiten zituzten. Horrez gain, testamentuak zaintzen zituzten, *fidesa* zutela suposatzen zelako (hala ere, beti ez zuten lan hori bete, Julio Zesarren testamentua Marko Antoniori eman baitzioten, nahiz eta horretarako eskubiderik ez izan). 30 urtez egon ondoren, euren karguaren egikaritza amaitzen zen eta ezkondu egin zitezkeen baina normalean ez zuten egiten, ordurako Erroman neska zaharrak zirelako eta *vestalaren* irudia mantentzea nahiago izaten zutelako, honek suposatzen zuen errespetu eta ohoreagatik. Gizonezko batekin harreman sexualak izaten harrapatuz gero, gizonezkoa hiltzen zuten, eta emakumeak bizirik lurperatzen zituzten. *Vestal* guztien burua *Vestalis Maxima* zen.

4. ERREPUBLIKAREN BUKAERA

Errepublika berantiarra Errepublikaren historiaren baitan hoberen ezagutzen dugun garaia da bi autore nagusiri esker: Zizeron (*De re publica*) eta Salustio (*Katilina* eta *Iujurtha*). Hain zuzen ere, bi autorek idatzitako obretatik ateratzen dugu gehien bat Errepublika berantiarren kontakizuna. Horrek zenbait arazo ekar ditzake, autore hauek euren ikuspuntua inposatzen dutelako gertaerak kontatzen dituztenean. Horrela, adibidez, Zizeron oso kontserbadorea zenez, krisialdiari buruz daukagun ikuspegia oso kontserbadorea da. Era berean, esan daiteke, Errepublikaren inguruan daukagun

ikuspegia batez ere errepublika zizeroniarra da: ez dakigu benetan horrela izan zen, edo soilik Zizeronen irudia den.

Res publicak mediterraneoko konkista burutu eta gero, hirian barruan aldaketak gauzatzea beharrezkoa izan zen, hiriko egiturak Erroma hiria kudeatzeko eginak zeudelako eta ez inperio oso bat kudeatzeko. Inperio oso bat kudeatu beharrak arazo batzuk sortu zituen arazoaren barnean:

- Administratiboak (kanpo arazoa): Orain arte ez zuten inperio bat gobernatzeko eredurik eta egiten zutena zen konkistatzen zuten heinean inprobisatzea. Administrazioaren oinarria *provincia* izan zen. Probintzia hasieran jeneral/imperator bati lurralde bat gobernatzeko ematen zitzaion gaitasuna zen; hau da, gaitasuna zen ez lurraldea. Denborarekin *provincia* lurraldeari aplikatu zitzaion: konponbide administratiboak behar izan zirenean, lurralde berriak inperioan integratzeko, orduan probintziei lurraldetasuna, espazio fisikoa, aitortu zitzaien.
- Desberdintasun sozialak (barne arazoak): aberatsek gero eta lur gehiago jasotzen zituzten bitartean, jende arrunta gero eta gehiago txirotzen zelako. Etengabeko gerren ondorioz, herritarrek gero eta denbora gehiago igarotzen zuten kanpoan soldadu gisa, lurrak deskuidatu eta horrek familiaren pobretzea ekartzen zuen.

Tentsio guzti horiek K.a. I mendean eztanda egingo zuten. Azken finean, Errepublikaren muga politiko-administratiboak ezin izan zion erantzun Inperioaren errealitate berriari. Hori dela eta, mende hura oso gatazkatsua izan zen.

Errepublikaren bukaeraren inguruan mila bertsio daude, baina joera historiografikoan bi nabarmendu dira tentsioak eta erorketa azaltzeko:

- 1) Korrante ingelesa (P. Brunt): Hauen aburuz, arazoa ez zen *res publica* ez zela gai bere erdua aldatzeko, edo aldaketak kudeatzeko: arazoa zen *res publicaren* eredu berri bat sortzeko kanpoko eraginak etorri zirela, bereziki Greziatik. Kanpoko eragin horiek bi motakoak ziren:
 - Real politic: Grezian K.a. I mendean indarrean zegoen sistema politikoa monarkia izan zen; hortaz, Greziatik etorritako erdua monarkia helenistikoa zen, eta hura zen Erromari proposatzen zitzaiona. Greziara joandako hainbat jeneralek ikusi zuten monarkia inperioa kontrolatzeko eredu aproposa zela eta hori inportatu nahi izan zuten; baina sistema hori senatuaren interesen aurka zihoan eta tentsioak sortu ziren.
 - Greziatik etorritako beste sistema demokrazia tradizionalarena zen, indarrean ez zegoena, baina filosofiaren bidez eta intelektualen bitartez ideia demokratikoak Erromara iritsi ziren eta asanblada popularren artean erakargarri bihurtu ziren.

Beraz, ideia berri horiekin bi talde egongo ziren interesatuta: monarkiari dagokionez, jeneral boteretsuak eta demokraziari dagokionez, asanblada popularrak. Eta ideia horien aurka senatua egongo zen. Horrela, hurrengo hirukia

ikusten da: punta batean, senatua (aristokrazia), bestean, magistratu gorenak (monarkia), eta hirugarrenean asanblada popularrak. Ideia hauen zabalketarekin triangelu honetako konkordia edo *consensusa* apurtuko zen, hamankomunean lan egin beharrean, bakoitzak bere aldetik joko baitzuen. Gaur egungo beste eztabaida da zeinek tiratuko zuen gehiago errepublikarekin bukatzeko, eta errepublika apurtzeko benetako asmoa zegoen ala ez.

- 2) Korronte alemaniarra (C. Meier), Krise ohre alternative (krisia alternatibarik gabe): Alemanek diote arazoa ez zegoela eredu politikoetan, erromatarrek ez zutelako euren sistema politikoa kolokan jartzen. Arazoa zen *res publica* berri baten beharra planteatu zenean ez zutela jakin izan nola egin sistema eurentzat egokia, belaunaldi horretan ez zelako egon pertsona egokirik aldaketa horiek aurrera eramateko. Horrela, aukera bakarra beraien artean borrokatzea izan zen, eta indartsuenak boterea eskuratzea. Baina ez zen bataila ideologikorik eman, erromatarrek ez zutelako horrelakorik planteatzen, hau da, talde desberdinek (senatuak, jeneralek eta asanblada popularrak) ez zituzten eredu politiko desberdinak defendatzen, baizik eta berdina.
- 3) Korronte estatubatuarra (azkeneko urteotakoa): Estatubatuarrak indar handiagoa jarri dute bortizkerian/biolentzian; izan ere, beraientzat Errepublikaren erorketa bizitza politikoan lehen existitzen ez zen bortizkeria sartu zelako gertatu zen. Hala ere, ikuspegi hau idealizatu dago eta gehiegi oinarritzen da Zizeronen irudian, bortizkeria ez zelako I. mendeko gauza soilik, lehenago ere ematen zen. Zizeronen ideiekin gehiegi kutsatuta daude, Zizeronek zioelako toga armak baino inportanteagoa izan behar zela, eta militarrek togaren menpe (erretorikaren pertsuasioa) eta militarren menpe egon behar zirela. Baina hori da Zizeronek zioena, edo hobe esanda, nahi zuena, eta ez benetan gertatzen zena. Ikuspegi horren arabera, barruko Erroma erretorikarako gune lasaia da, eta kanpoko berriz, militarra eta inperiala, kanpoko lurak menperatzen dituen. AEBk hori defendatzen duen ideia da, oso egokia suertatzen zaielako berak daukan sistemari begira.

Arazoa ere “krisialdi” kontzeptuarekin dago, izan ere, kontzeptu hau historiografia modernoaren interpretazioa da: mendebaldean erorketaren joera dago, hau da, dena bukatuko denaren ustea. Horrez gain, historiagileok beti izaten dut krisien azalpen borobilak bilatzeko joera, nahiz eta askotan erorketak azaltzeko ez egon gertaera bakarra eta gauza guztien nahasketa bat izan.

Dena den, argi izan behar dugu erromatarrek inoiz ez zutela ikus *res publica* amaitu zenik (hori gaur egungo ikuspegia da) eta monarkiaren kontzientzia bakarrik hasi ziren izaten I. mendearen amaieran: hor hasi ziren ikusten *res publicaren* gainean beti printze bat zegoela. Tazitok eta Senekak bakarrik ikusten dute bere betiko *res publican* printze bat dagoela beti eta ezin dutela kendu, baina besterik ez. Horregatik egungo kezka da -eta ez antzinako erromatarrena- ea Augustok benetan apurketa edo jarraipena suposatu zuen.

Egokiagoa izan daiteke esatea erromatarrentzat prozesu hau ERALDAKETA bat izan zela, eta ez mozketak edo apurketak bat, beraiek egokitu egin zirelako. Eraldaketaren ideiarekin jarraituz, elite edo aristokrazia batekin lideratutako sistema politiko batetik, pertsona bakar batek zuzendutako sistema batera pasatu zen, non boterearen triangulu tradizionala kanpotik menderatua izango zen *princeps* (guztien artean lehena esan nahi duena) batengatik. Baina *princeps* hori ez zen izango kanpoko pertsona bat, baizik eta eurek onartutako pertsona bat (gainera beraien berdina zena), boterea hartuko zuena egitura triangularraren oreka berreskuratzeko.

Hori zen erromatarrek aldarrikatzen zutena, baina kanpotik ikusita gaur egun, ikuspuntua desberdina da. Izan ere, *princeps*ak boterea eskuratzen zuenean -arazo eta tentsio guztiak konpontzeko-, behin hori lortuta, boterea itzuli beharrean, bereganatu egiten zuen eta trianguluko beste subjektuei kentzen saiatzen zen. Hain zuzen, liskarrak eteteko aldarrikapen hori behin eta berriro erabiliko zen printzearen botere bereganatzea eta mantentzea justifikatzeko aitzakia moduan. Horrela, *princeps*ak bere burua *res publicaren* defendatzaile / zaintzaile / salbatzaile moduan definitzen zuen, eta inoiz ere ez, errege moduan.

Zizeron behin eta berriro dabil *res publicaren* salbatzaile baten bila eta bere burua salbatzaile moduan aurkeztuko du. Hasiera batean, horrek funtzionatuko du, baina denborarekin beste salbatzaile batzuk etorriko dira: Mario, Sila, Ponpeio eta Zesar. Pertsonaia guzti hauek Errepublika salbatzen ari direla sinesten dute, eta inoiz ez dute paper hori betetzeari utzi nahi. Salbatzailearen rola betetzea arriskutsua zen, behin zure boterea ahulduta eraila izaten zinelako gehienetan.

4.1. ERREPUBLIKA BUKAERAKO GERTAERAK

Etengabeko gerrek Italiako nekazariak pobretu zituen, nekazari asko enrrrolatzen zirelako armadan, bere lurren lanketa luzaroan abandonatuz. Gainera lur banaketak egitean, ez zuten banaketa horietan parte hartzen, eta beti aberatsenek eskuratzen zituzten lurak. Beraz, pixkanaka errealitate ekonomiko berri bat agertzen joan zen: latifundioena. Horrela, lurrarengatik gatazkak gertatzen hasi ziren, batetik nekazari asko lurrik gabe geratu zirelako eta gainera euren lurak ustiatzeko baliabiderik gabe geratu zirelako.

Gerraren etekin guztiak aristokraziaren eskuetan geratzen ari zirela ikusten zen. Gainera, nekazari librei lan kompetentzia agertu zitzaie, etorritako esklabo mordoen ondorioz. Beraz, lanik ere ez zegoen. Ondorioz, jende asko hirietan pilatzen hasi zen, *proletari* bihurtuz (hauek semeak soilik zituztenak ziren). Egoera hori konpontzeko bi saiakera egon ziren:

- 1) Bata Grako anaiena: bi anai hauek nekazal erreforma bat proposatu zuten eta, horren barruan, lur publikoaren banaketa berria. Grakoen erreforman, beraz, lur kopuru batzuk hiritarren artean banatuko ziren, baina justu lur horiek hegoaldeko Italian zeuden, latifundioak garatzen hasi ziren zonaldean, eta hauen interesekin talka egiten zuenez, Grako anaiak hil zituzten, eta erreforma bertan behera geratu zen.

- 2) Mariorena: Mariok armadaren erreforma egin zuen, armada edonorentzat irekiz. Lehen, neurri bateraino behintzat, dirua zutenak bakarrik enrolatu ahal ziren armadan, norberak bere armak ordaindu behar zituelako. Mariorekin, jeneralek dirua emango zuten tropak armatzeko -herritar pobreei armadan sartzeko aukera eskainiz (batez ere *proletariei*)- eta, horrela, armada handiagoa lortu zuen eta armadaren izaera ere aldatu zuen (lehen aristokratikogoa zen eta orain popularragoa). Horrek arazoak sortu zituen, lehen armada kontrolatuago zegoelako, baina orain popularragoa izanik, matxinada gehiago egongo zirelako. Izan ere, soldaduei soldata eta botina zin egiten zitzairen eta, horiek lortzen ez bazituzten, matxinatu egiten ziren.

Erromatarren legioak osatzeko etengabe jende berria behar zen: legioak, lehenik eta behin, erromatarrekin osatzen ziren eta, gero, aliatuekin. Eta aliatuekin (Erroman bizi ez zirenak baina bere ondoan borrokatzen zutenak) ere gerra soziala gertatu zen; izan ere, saria eskatzen hasi ziren: ez bakarrik dirua baita hiritartasuna ere. Hala ere, erromatarrek ez zieten eman. Erromatarrek ez zuten hiritar bihurtzea nahi, orduan bozkatzeko eskubidea lortuko zutelako eta ondorioz, botere tradizionalak aldatu zitezkeelako. Gainera, magistratu izateko aukera izango zuten. Hau da, hiritar gehiago sartzek boterea partekatzea ekarriko zuen eta hori ez zuten nahi.

Esklabeekin ere arazoak sortu ziren, hain zuzen, latifundioetan. Latifundioak lantzeko gehienbat esklaboak erabiltzen ziren eta, ondorioz, K.a. I. mendearen amaieran izugarritzko esklabo kopurua zegoen Italia hegoaldean. Esklavo gehienak gerra gatibuak ziren (egoera bortitza bihurtu zen oso denbora gutxian esklabo asko sartu zirelako). Askok nekazaritzan lan egiten zuten, baina beste askok gladiadore moduan jarduten zuten, gizon armatuak zirenak eta asko soldadu ohiak zirenak. Beraz, hasieran ustezko arriskua zena, K.a. I. mendean, Espartakorekin, benetako arrisku bihurtu zen; azken finean erromatarrek egin zutena izan zen tropa armatu bat beraien lurraldean sartzea, ustetan behin esklavo bihurtuta menderatu egingo zituztela, baina ez zen horrela gertatu. Espartakoren matxinada Capuan hasi zen, eta hasieran zenbait arrakasta izan bazituzten ere, 8 legioren bidez akatu egin zituzten. Erromatarrek egoera honekin ikasi egin zuten, esklaboen azkeneko matxinada izan zelako. Hala ere, honek tentsioak sortu zituen.

Jeneralak beraien artean borrokatze zeuden, aliatuak haserre zeuden, beteranoak lurrik gabe zeuden, esklaboak matxinatzen ari ziren... Egoera, beraz, kontrolaezin bihurtu zen.

Gaur egun ere zenbait nabardura egiten dira egoera honen inguruan. Adibidez, seguruenik demografiaren gorakada gertatu zen krisialdi garaian. Horrez gain, armada gero eta boteretsuagoa egin zen, boterearen zatiketa eta indartsuenen arteko borroka ekarri zituena. Senatuaren legitimazioa gero eta gehiago kuestionatzen hasi zen eta boterea gero eta gehiago metatu zen magistratuen eskuetan. Horrek senatuarekin tentsioak sortuko zituen, azkeneko hau bere boterea alferrik berreskuratzen saiatuko zelarik..